- Biomasa naturala: Naturan ekoizten dena gizakiaren parte hartze barik. Hau eskuratzeko zaila izan daiteke baldin eta beren kokapenetik gertu ez badago.
- Hondakineko biomasa lehorra: Nekazaritzan, abeltzantzan, elikagai-industrietan eta hirietan sortutako hondakinak % 60-ko hezetasuna baino gutxiago dutenak.
- Hondakineko biomasa hezea: Isuri biodegradagarriak %60-ko hezetasuna baino gehiago dutenak.




- Laborantza energetikoak: Laborantza hauek ekoizten dira erregaietan eta bero energian transformagarria den biomasa lortzeko, adibidez artoa bioerregaiak lortzeko.

Hauetatik etxetiar erabilpenerako interesgarriak direnak biomasa naturala eta hondakineko biomasa lehorrak dira. Gainera proiektua kokatua dagoen lekuan Kokapen atalean ikusten den moduan, landa basoaz inguratuta dago, beraz biomasa naturala eskuragarri egongo da. Biomasa ia dohainik eskuratuta proiekturako energia iturri ezin hobea izango da berokuntzarako sistema moduan.

Naiz eta iturri ona izan sistema laguntzaile moduan planteatuko da, biomasaren prozesaketa basotik lana ematen duelako eta ez delako geotermiaren bezain beste eroso izango.

Jakinda zein biomasa erabiliko den energia lortzeko prozesua deskribatuko da laburki. Biomasatik energia ateratzeko bere egituraren karbonoa oxidatu behar da, prozesu hau erreketaren bidez gauzatzen da.



Karbonoa oxidatzen da eta oxigenoa erreduzitzen da, erreazio honetatik karbono dioxidoa ( $CO_2$ ) eta energia lortzen da. Prozesuan lortutako energia erabiliko da etxebizitza berotzeko.

Zein onurak ditu biomasa?

- $CO_2$  igorpenen murrizketa/ Emisio neutroak.
- $SO_x$ ,  $NO_x$ , eta partikula solidoak ez dira igortzen.
- Kanpo energien/ erregaien menpekotasuna gutxitzen da.
- Horniketaren jarraitasuna mantendu.
- Energia iturri kudeagarria da.
- Nekazaritza sektorerako beste aukera bat baserri inguruetan igotze ekonomikoa sortuz.



Ikusi daiteke hainbat onura daudela, hauetatik emisio neutroena komentatukoa da zeren lege aldetik interesgarria da baita.

#### 1.1.1.4.3.1. Karbono aztarna neutroa

Karbono aztarna definituko da lehenengoz, hau defini daiteke era honetan: osotasunean igorritako berotegi efektuko gasak era zuzenean edo ez zuzenean pertsona, erakunde edo produktu batek isurita.

Kontzeptu hau era batean gauzatu zen kontsumitzaile eta erabiltzaileak jakitun izateko enpresek, zerbitzu eta produktuek adina kutsatzaile diren. Beraz, gure inguruan ditugun gauzak euren karbono aztarna daukate, karbono isuri hauek artikuluen ekoizketa prozesuan, garraioan, erreketan, etab... igortzen dira. Beraz, zer da aztarna hau neutroa izatea?

Igorritako karbono emisioak eta harrapatutako karbono kantitateak berdinak direnean, honela karbono emisioen balio orokorra zero izatea lortzen da. Honela deritzon klima neutrala lortzen da, ez delako berotegi efektuko gas gehiago isurtzen. Ondorioz ez da lurreko beroketa efektua areagotzen

Karbono aztarna neutroko adibidea biomasa da, honetan erreketan prozesuan igortzen den karbonoa orekatu egiten da landareek harrapatutakoarekin. Biomasa berriro landatzen denez geroago prozesatzeko segurtatzen da karbono aztarna neutrala izango dela. Hona hemen prozesuaren adierazgarri bat:



*Irudia 17 Biomazaren karbono aztarna neutroaren zikloa.*

#### 1.1.1.4.3.2. Etxebizitzetan erabilitako biomasa

Etxebizitzetan erabiltzen diren ekipoak berokuntzarako eta ur beroa lortzeko izaten dira eta erregai motaren arabera bi bereiz daitezke:

- Pellet-ak: %90-95-ko efizientzia lortzen dute. Biomasa birrinduaz osaturiko pastillak dira. Hezetasun kantitate gutxi daukate errektuzaren efizientzia hobetuz. Garraiatzeko eta biltegitratzeko errazagoak dira. Baita ere norberak ekoitz ditzake.
- Egurra: %80-90-ko efizientzia lortzen du. Normalean erreketarekin erdi- pirolisi prozesu bat gauzatzen da eratorritako gasak erretzeko. Basotik zuzenean lor daiteke.

Behin biomazaren beroa lortuta, beroa nola transmititzen den bi era daude:

- Airetik: Ez da oso efizientea baina ez du instalazio askorik behar. Aire berotzen da gertu dauden egongelak berotzeko.
- Ur sistematik: Efizientea da, baina hainbat segurtasun elementu instalatzea behar du. Modu honetan energia-anitzeko deposituak batera konekta daiteke bai berokuntza, bai ur beroa lortzeko.




#### 1.1.1.4.4. Aireztapenaren bero berreskurapena

Etxebizitzako airearen berrikuntza egiten den unean irteerako aire-beroaren berreskurapenean datza sistema. Horretarako bero trukagailu batek bero transferentzia egiten du irteerako eta sarrerako airearen artean.

Jakina den moduan DB HS 3 kode teknikoaren arabera etxebizitzek osasungarritasun ona eduki dezaten aireztapen aproposa eduki behar dute. Aireztapena, kode teknikoaren arabera tiro mekanikoaz egin behar da, bestelako betebeharrak karakterizazio legediaren atalean aipatuko dira. Beraz, tiro mekanikoak eragiten duen makina soilik ipini barik, aproposa izango litzateke aireztapena bero berreskuraketarekin ipintzea, honela galera termikoak gutxituko lirateke, aurrezpen ekonomikoa dakarrena.

Nola funtzionatzen du?

Sisteman, irteerako eta sarrerako aire emariak kontrakorrontean pasarazten dira haizegailu mekanikoaz baliatuz. Ondoren filtroetatik pasarazten dira eta bero trukagailuan bero transferentzia gertatzen da. Neguan kanpoko airea barrukoa baino hotzagoa denean, irteerako aireak sarrerako aireari beroa hematen dio, aldiz, udan kanpoko airea barrukoa baino beroago dagoenean, irteerako airea sarrerakoak hozten du. Behin bero transferentzia gertatua irteerako airea kanporatzen da eta sarrerakoa etxean barruratzen da. Ona hemen sistemaren eskema lagungarria:



*Irudia 18 Bero berreskuratutarako eginko aireztapen unitatea. Fluxu gurutzatua.*

Sartutako airea izango da klimatizatu behar dena egoera optimoan egoteko. Trukagailuan gertatutako bero transferentziaren ondorioz, salto termikoa gutxiagoa izango da, beraz klimatizaziorako behar den energia gutxiagoa izango da.

Bi sistema nagusi bereiz daitezke aire sarreraren arabera:

- Fluxu gurutzatuak: % 90 inguruko efizientzia.
- Fluxu paraleloak: % 60 eta % 85 bitarteko efizientzia.
- Fluxu birakorra: % 70 inguruko efizientzia.

#### 1.1.1.4.4.1. Fluxu gurutzatua

18. Irudian ikusten den moduan, fluxu gurutzatuko sistemak aire harrerak berekiko norabide ortogonalean sartzen dira, honela bero eta hozte fluxuak gurutzatzen dira. Sistemaren arabera fluxuak nahastu daitezke edo ez, azkenengo kasuan plaken bidez banatzen dira bi korronteak. Funtzionamendua ikusita, dituen alde onak orraztuko dira:

- Efizientzia energetikoa hobegotzen du.



- Tiro mekanikoaz egindako aireztapenetik energiaren berreskurapena eta energia aurrezpena.
- Aurrezpen energetikoa eta ekonomikoa.
- Sistemak daukan kostu ekonomikoak ahalbidetzen du bere amortizazioa denbora laburrean.

Kasu praktikoetan ekipo hauek beroaren % 60-a berreskuratzen dute, beste era batean ekipo mekaniko konbentzionalak xahutuko beroa izango litzatekeena. Honela klimatizazio ekipoen energia eskariaren % 40 adina aurreztu daiteke. Komentatu beharra dago sistemetan zenbat eta aire bolumen gehiago sartu orduan eta efizientzia gutxiago edukiko du gailuak.



### 1.1.1.4.5. Etxebizitzen Isolamendua

Isolamendua, material eta instalazio teknikak dira, zeinak eraikiera elementuetan erabiltzen dira toki beroak mugatzeko, honela bero transmisioa ekiditeko beste nai ez diren lekuetara.

Egoera asko daude zeinetan interesgarria izaten da bero fluxua murriztea norabide jakin batean. Kasu ohikoena etxebizitzetako isolamendu termikoa izaten da, bero galerak ekiditeko neguan eta udan irabazkinak ekiditeko.

Etxebizitzen isolamendua da lehenengoa, merkeena eta eraginkorra den neurria energia aurrezteko. Modu honetan gertatzen diren bero galerak murrizten dira, beraz klimatizazio ekipoei lan gutxiagoa egin behar dute.

Beraz garrantzitsua da etxebizitzako itxituraren isolamendu aproposa jartzea, erabili behar diren materialak eta eraikiera teknikak aproposak izan behar dira bero transferentzia apurtzeko. Hainbat faktore kontuan hartu behar dira isolamendua ipini haurretik:

- Eroankortasun termikoa:  $K - W/mk$ . Material batek beroa eroateko duen gaitasuna adierazten duen propietatea da. Zenbat watt garraitzen diren gradu bakoitzeko materialaren metro lineal bakoitzeko.
- Iragazkortasuna:  $g/(m.s.Pa)$ . Material batek duen ahalmena fluxu baten bidez zeharkatua izateko. Ur lurruna ez pasarazteko erabiltzen dira material hauek honela kondentsazioa interstizialak ekiditeko.
- Bero ahalmena:  $c - W/Kg^{\circ}K$ . Egoera aldatu barik masaren unitate baterako bere tenperatura unitate batean igotzeko aplikatu beharreko bero kantitatea da. Denboran materialaren portaerarako garrantzitsua.
- Propietate mekanikoak: Konpresioa eta flexioarekiko erresistentzia jain behar da esfortzu mekanikorik egin behar badu.
- Uraren absortzioa: Material zurgatu dezakeen ur kantitatea bere bolumenarekiko %-tan adierazita. Inportantea baldin eta leku hezean badago, honek materialaren propietateak aldatzen ditu.





- Tenperaturen tartea: Materialaren degradazioa gertatzen bada tenperatura konkretu batetik aurrera.
- Portaera kimikoa: Material batzuek denborarekin zenbait konposatu kimiko kaltegarri jaregin dezakete.
- Egonkortasuna: Zer nolako portaera duen beroarekiko, konposatu kimikoekiko eta mikroorganismoekiko.

Baldintza hauek kontuan hartuta kalkuluetan erabakiko da zein isolamendua proposatu etxearen itxitura hobetzeko. Isolatzaileen artean hiru mota nagusi daude:

- Zuntz erakoak: Filamentuez osaturik dentsitate baxua daukate. Porositate handia daukate: % 90. Suteen aurka egonkortasun handia dute. Hauek beira zuntza, artile minerala eta alumina zuntzak izan daitezke.
- Zelularrak: Gelaxka irekiez edo itxiez osatzen diren materialak dira, taula malguak edota zurrinak osatuz, baita ere lekuan jaurtiketaren edo ureztatzearen bidez egokitu daitezke. Hauek poliuretanoa eta poliestireno hedatua izan daitezke.
- Granularrak: Partikula txikiak izaten dira aurrefabrikatuko aglomeratuan edota era soltean erabiltzen direnak. Hauek perlita eta artelazkia izan daitezke.

Isolamendua zehaztuko da Azalpen Atalean, baina hiru mota hauetatik zelularrak ez dira erabiliko. Material hauen duten egonkortasuna ez da aproposa zeren eta tenperatura jakin batzuetan zenbait konposatu kimiko hegazkorrak ekoitz daitezke. Horretaz aparte ingurune biologikoan kalteak sor ditzakete kate trofikoan sartuz, jakina materiak hauek degradaezinak dira.

Isolamendu moten inguruan hitzegiteaz aparte jakin ikusi behar da ea etxebizitzaren esparru guztiak ondo isolatuak dauden, hau da, Zubi termikoak ekiditea. Azpi atal hau gomendio moduan eskainiko da etxebizitzaren isolamendua hobetu dadin.

Zubi termikoak



Puntu edo leku lineala etxebizitzaren itxituren zeinean beroa errazago transmititzen den inguruko eremuetan baino erresistentzia termikoaren aldaketagatik. Leku bat izaten da zeinetan azaleko isolamendua apurtzen den.

Beraz, fenomeno hau gerta daiteke:


- Itxituraren geometria aldaketagatik.
- Materialen edota erresistentzia termikoaren aldaketagatik.

Gaur egun etxebizitzak isolamendu egokia daukate, hala ere zubi termikoengatik jasandako galerak %20 eta %10 artean daude. Lehenago ikusi den moduan *Passiv Hause* kriterioak elementu hauen murrizpenean bideratzen da baita. Gaur egun erabiltzen den legediak efizientzia energetikorako, behartzen du eraikitze irtenbideak topatzea zubi termikoak deuseztatzeko.

Onen adibide bat topa daiteke bi egurrezko zafla elkartzen dituen hiltzearen artean. Hiltzeak bero eroankortasun hobea du egurrezko zaflak baino ondorioz hiltzetik alde egiten duen beroa handiago izango da egurrezko zaflatan baino. Beraz zubi termikoa deuseztatzeko hiltzea material isolatzaileaz estaldu beharko litzateke. Etxebizitzetan era grafiko batean hauek izaten dira zubi termikoak:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



*Irudia 19 Etxebizitza baten ohiko zubi termikoak.*



## 1.1.2. Xedea

Etxebizitzaren energia kontsumoa murriztea da helburua. Berotzeko edo hozteko energia eskaria murriztea, erabiltzen diren ekipoa energia berriztagarriez baliatzea eta efizientzia handia izatea bilatuko da proiektuan. Mende honetara moldatzea etxea etorkizunean eratorri daitezkeen arazoak kontuan hartuta. Baita ere karbono aztarna jaistea ahal den bezain beste, ekonomia eta efizientzia kontuan hartuta. NZEB eta *Passive House* eredu moduan hartuta, zenbait kontzeptu aplikatzea bilatzen da.

Proiektua aplikagarria izatea bilatzen da baita, eraikita dauden etxeetarako balio izatea. Eredu aplikagarri bat eratu nahi da aztertzeko zein izan ahal diren abantailak eta desabantailak eta bideragarritasuna frogatzeko.




### 1.1.3. Kokapena eta egoera

Proiektua non egingo den jakitea premiazkoa da, kasu honetan ez delako proiektua modu teorikoan egingo, atal batzuk praktikara eramango dira eta. Honela parametro klimatikoak eta geoteknikoak egoera errealean eta zehatzean zehaztuko dira.

Proiektua, Bizkaiko (Espainia) Ea herrian kokatuko da, Bedarona auzoan zehazki, koordenatuak ondorengoak direlarik:

- Latitudea: 43°22'36.34"N
- Longitudea: 2°34'39.45"W



Legenda  
■ Bizkaia  
■ Euskadi  
■ Espainia

*Irudia 20 Kokalekua Espainian*



#### Legenda

- Ea
- Bizkaiko Herriak

750 0 750 1500 2250 3000 m

*Irudia 21 Kokalekua Bizkaian.*

### 1.1.3.1. Ea-ko Datu Orokorrak

Bedarona, Ereño eta Natxituako arrantzaleek eraiki zuten herria XVI mendean. Hauek hirutik Natxitua da auzo zaharrena (Badaude gizaki aztarnak I. mendetik). Udalerrria Ea-ko hirigunea eta Natxitua eta Bedaronako auzoak eratzen dute.


Ea-ko Hirigunea, udalerrrian kostaldearen erdian dago eta itsasora zabaltzen da itsasadar txiki batetik eta honi elkartzut hondartza dago. Ezan daiteke arrantzale izaera duen hirigunea dela.

Bedarona, Ea-ko hirigunetik 3 km ekialdera kokatua dago. Landa zabaleko auzoa da, oso lasaia. Abeltzantza hemen daiteke landetan.

Natxitua, Ea-ko hirigunetik 3km mendebaldera kokatua dago, muino baten gainean kokatua dagoena.



Ea beste herri garrantzitsuegandik gertu kokatzen da. Gernikatik 11 kilometrora dago eta Lekeitiotik 6.2 km-ra.



*Irudia 22 Kokalekua beste herriekiko.*

Zehatzagoak izateko Bedarona auzoko Olabe baserrian kokatuko da proiektua. Itsas ertzetik nahiko gertu dago, 1 km-ra ain zuzen ere. Naiz eta itsasotik gertu egon ez dago itsas mailan, 134 m-ko altitudea dauka.



*Irudia 23 Olabe baserriaren kokalekua.*

Bi alderdi bereiztuko dira, etxebizitza alde batetik eta bestetik baserriak duen landa eremua:

- Etxebizitza: Eskari energetikoaren eragilea izango da, eta hau asetu beharko da. Etxebizitzak duen azalera erabilgarria aztertuko da, ondoren inplementatu nahi diren sistementzat zenbat leku dagoen jakiteko.
- Landa eremua: Hartze geotermikoa definitzeko beharrezkoa da jakitea zenbat lur eskuragarri dagoen ondoren sistema horizontala eta bertikala aplikatzeko. Beste parametro garrantzitsua geoteknikoa da, adibidez; dauden maldak jakin behar dira makinak bertan lan egin beharko dutelako.



*Irudia 24 Olabe baserriko landa eta etxebizitza eremua.*

Ikus daitekeen moduan Etxebizitza nahiko handia da, are handiagoa da landa eremua. Beraz kasu honetan ez da egongo problemarik lekuaren aldetik. Azalera handia behar duen energia sistema bat ipini nahi bada problema barik sartu ahalko da. Neurketa zehatzak kalkuluetan emango dira.





## 1.1.3.2. Biztanleriaren azterketa

Biztanleriaren datuak ikertuko dira gainera jakiteko zer nolako biztanleri mota dagoen. Baita ere kontuan hartuko da zein den biztanleriaren gaitasun ekonomikoak, honela teknologia onuragarri hauek beste jabe gehiagok inplementa dezaketen edo ez.



### 1.1.3.2.1. Demografia

Ea-ko Udalerriak 854 biztanle ditu 2016-ko erroldaren arabera; 430 gizonetako eta 424 emakumezko. Eustat datuen arabera biztanleriaren hainbat datu ikertu daitezke:

Taula 1 Biztanleriaren demografia datuak

|  | Urtea | Udalerria | Eskualdea | Bizkaia | EAE   |
|--|-------|-----------|-----------|---------|-------|
| Biztanleriaren urte arteko aldaketa (%)                | 2017  | -1,06     | -0,17     | 0,06    | 0,21  |
| Biztanleriaren aldaketa azken hamarkadan (%)           | 2017  | -3,90     | 1,68      | 0,59    | 2,44  |
| Haur indizea. 0-14 uste arteko biztanleak (%)          | 2017  | 9,68      | 14,10     | 13,37   | 14,04 |
| Zahartze-indizea. 65 urtetik gorako biztanleak (%)     | 2017  | 26,31     | 22,89     | 22,19   | 21,69 |
| Gainzahartze-indizea. 75 urtetik gorako biztanleak (%) | 2017  | 15,43     | 11,70     | 11,32   | 10,84 |

Biztanleria egirua (% biztanleria osoa)



Irudia 25 Biztanleriaren egitura.



Datuak ikusita antzeman daiteke Ea-k biztanleria galtzen duela eta zahartze tasa Bizkaikoa eta Estatukoa baino handiagoa dela. Gainera umeen ehuneko oso txikia da 75 urte dukateneekin konparatuta, baita, estatuaren mediatik behera dago batz bestekoa.

Honek dio Ea-ko udalerriak biztanleria zaharkitua duela. Gainera hazkunde tasa negatiboa izanda gerta daiteke etorkizun batean udalerrria bera egoera ez-erosoan jartzea. Naiz eta proiektuari ez dagokion, baina datuak ikusita, komenigarria izango litzateke udalerrian biztanle berria ekartzeko sustapen plan bat eratzea.

### 1.1.3.2.1. Etxebizitzak


Datuen arabera interesgarria izan da ikerketa txiki bat egitea Ea-ko etxebizitzaren inguruan. Ikusi nahi da ea egingo den proiektua udalerriko bezte etxebizitza batzuetan aplikagarria izan daitekeen edo ez. Honela proiektuko xedera etxebizitza gehiago gehi daitezke, ekonomia sustatuz eta jarduera soziala handituz.

Taula 2 Ea-ko etxebizitzaren datu orokorrak.

|   | Urtea | Udalerrria | Eskualdea | Bizkaia | EAE    |
|---|-------|------------|-----------|---------|--------|
| <b>Etxebizitza-dentsitatea egoitza-lurzoruan (Etxebizitza/ Ha.)</b>                                     | 2017  | 105,12     | 27,73     | 50,25   | 46,69  |
| <b>Hutsik dauden familia-etxebizitzak (%)</b>   | 2011  | 13,84      | 16,12     | 10,49   | 11,40  |
| <b>50 urtetik gorako antzintasuna daukaten familia-etxebizitzak (%)</b>                                 | 2016  | 33,40      | 29,65     | 32,29   | 28,01  |
| <b>Familia-etxebizitza nagusien erosotasun-indizea</b>  | 2011  | 60,70      | 68,50     | 70,20   | 72,00  |
| <b>Aurri-egoeran, egoera txarrean edo eskasean dauden eraikinetako familia-etxebizitza nagusiak (%)</b> | 2001  | 2,27       | 4,29      | 5,87    | 8,66   |
| <b>Bizitegiatarako lurzoru urbanizagarria (%)</b>   | 2017  | 0,00       | 5,90      | 12,05   | 12,20  |
| <b>Biztanle-dentsitatea (bizt./Km<sup>2</sup>)</b>  | 2017  | 59,88      | 165,49    | 518,45  | 309,26 |



**Familia etxebizitzaren egoera (% s/ guztira)**



*Irudia 26 Ea-ko etxebizitzaren egoera.*

Datuak ikertuta, X grafikari ikus daitezkeen moduan 50 urte baino gehiagoko etxebizitza asko daude, estatuko media baino gehiago. Orain dela 50 urte aplikatzen ziren efizientzia irispideak oso desberdinak ziren oraingoekin konparatuz. Beraz, 50 urteko edo gehiagoko etxebizitzak oso ez eraginkorrak izan daitezke termikaren aldetik.

Beraz ondoriozta daiteke udalerriko beste etxebizitzetan proiektuaren eredua lekua daukala eta hauei suspertu daitezkeela. Gainera datuak kontuan hartuta, Bizkaiko etxebizitzak nahiko zaharkituak daude Euskadiko mediarekin konparatuta, hau da, proiektua susper daiteke bezte Bizkaiko etxebizitzetan ere.

## 1.1.4. Hautabideen ikerketa

Aplikatu daitezkeen teknologietatik, ikusi behar da hauetatik zein alternatiba aproposak diren proiektuan inplementatzeko. Irizpide hau, plazaratutako baldintzen menpe zehaztuko da, honela alternatiba hoberenak aukeratuz.

Proiektua gauzatu haurretik hautabide ezberdinak proposatu dira beroketa sistema printzipal moduan. Hautabide hauetatik batzuek baldintza nahikoak betetzen dituzte proiektuan aplikatu ahal izateko. Aldiz, badaude beste batzuk kontuan hartu direnak baina azkenean ez direnak inplementatu.

Ondoren baztertu diren teknologiez hitz egingo da, zein diren hauen funtzionamendu orokorra, zein diren puntu ahulak eta zurrinak eta baztertzearen arrazoiak

### 1.1.4.1. Aerotermia

Geotermia moduan teknologia honetan bero ponpa bat erabiltzen du. Funtzionamendua ponpa geotermikoaren modukoa da. Aldatzen den elementua da energia nondik hartzen duen. Aerotermiako lurrungailuko bero transferentzia aire bitartez egiten da, hau da kanpoko airetik hartzen da beroa.

Azken urteetan bilakaera handia izan duen teknologia izan da, erregai fosilen presioen hazkundeak eraginda.

Abantailak

- Makina ponpa geotermikoa bezain beste kostatzen du, baina ez du zundaketarik behar, beraz, askoz ere merkeagoa da.



## Desabantailak

- Errendimendu txikia energia geotermikoarekin alderatuta. kalkuluetan ikusten den moduan airearen tenperatura asko aldatzen da urtean zehar, honek eragiten du energia ekarpena desberdina izatea eta errendimendu gutxiagoa izatea.

Aeroterminia baztertu egin da gehien bat efizientzia gutxiagoa duelako. Klimaren joan etorriak ezin direlako kontrolatu gehien bat baztertu da eta etorkizunean berotegi efektuaren ondorioz itxitako klima baldintzak ez jakinak direlako. Geotermia instalazioarekin bermatzen da bero ekarpen konstantea 15°C ingurura.

### 1.1.4.2. Biomasa Galdara

[1.1.1.4.3] Atalean deskribatu da teknologia hau. Oso aproposa da inguruko baldintzak direla eta gainera merkea da. Ez da hautatu azkenean energia iturriak dibertsifikatu nahi direlako. Naiz eta izangai ona izan ez da bakarrik teknologia bakarrean oinarritu nahi, azken batean gertakariak direla medio eta hornikuntzan etena gertatzen bada klimatizazioa eten daiteke. Egoera hau udan gerta daiteke problemarik gabe baina neguan gertatu ezker arazo larria bilakatu daiteke.

Baztertu diren teknologia posibleak behin ikusita, 1.1.1.4 Atalean ikusitako teknologiak erabiliko dira, hauen funtsa lehenago komentatu den moduan efizientzia hobetzea izango da, bai termika aldetik, bai beroaz hornitzen dituzten ekipoen aldetik. Horretarako hautatu diren teknologietatik euren bariantza aiposena hautatuko da. Ondoren zein teknologia mota hautatzen den azalduko da.

Termikaren aldetik 1.1.1.3. Atalean ikusitako NZEB-eraikinak eta *Passivhaus* irispideak jarraituko dira nolabait.



### 1.1.4.3. NZEB-eraikinak eta *Passivhaus*

NZEB eraikin kontzeptuaren inguruan mugituko da proiektua, era honetan energia marko berriei maldatzeko naiz eta lege aldetik behartuta ez egon.

NZEB irispideak ez ditu zehazten zein teknologiez baliatu daitekeen etxebizitza bat eskari termikoa gutxitzeko, horregatik badago egiaztagiria bat, *Passivhaus* zeinetan ainbat teknikak erabiltzen diren demanda termikoa jaitsi ahal izateko.

Proiektuan teknika hauek kontuan hartuko dira metodo lagungarri moduan helburu bat gauzatzeko; etxe bizitzaren eskaera termikoaren murrizketa. Baina naiz eta metodo hauek irizpidetzat hartu, ez dira era zorrotzean aplikatuko *Passivhaus* egiaztagiria lortzeko, Zergatik?

- Proiektuaren kasurako ainbat baldintza kontuan hartu dira:
- Behar diren estandarrak *Passivhaus* egiaztagiria lortzeko nahiko zorrotzak dira.
- Estandarrak lortzeko eraiki berri ez den etxe batean nahiko zaila da.
- Ekonomia aldetik ez du merezi adina dirua xahutzea horren ondo isolatzeko, azken batean aurrezten denaren amortizazioa ez duelako merezi latitude hauetan.
- Infiltrazio tasa hain baxuak lortzea 400 urteko eraikin batean nahiko gatza da eta garestia da.

Beraz, erabiltzen diren teknikak jarraituko dira era laxo batean NZEB erako etxebizitza bat lortzeko.

Horretarako bi hobekuntza egingo dira, bai termikan eta aireztapenean. 1.1.1.4 Atalean plazaratu dira teknologia hauek, hemen zeinek aukeratu diren zehaztuko dira.



#### 1.1.4.4. Termikaren Hobekuntza

Isolamendu termikoa proposatuko da etxearen eskaera termikoa jaisteko, zein isolamendu motak hautatuko diren, era berean ez da proposamenik egingo isolamenduaren muntaia tekniketan, meatze ingeniari baten kompetenziengatik at dagoelako.

Erabilitako materialak etxebizitza isolatzeko ingurugiroarekiko errespetagarriak eta inerteak izatea bilatzen da. Modu honetan bilatuko da materialen efizientzia. Baita ikusiko da ea merezi duen produktu sintetikoak edo produktu “naturalak” erabiltzea efizientziaren arabera.

Materialen hautaketa prozesuan zelular erako materialak baztertuko dira hauen toxikotasuna zalantzan dagoelako baldintza batzuen menpe. Horretaz aparte ez dira erabiliko ingurumenarekin ez direlako oso errespetagarriak.

Ondorioz zuntzezko eta granular erako materialak erabiliko dira.

- Zuntz materialak: Artile minerala hautatuko da bere propietate termikoengatik naiz eta sintetikoa izan, hau ingurumenarekiko inerte delako. Estalki bertikalak isolatzeko erabiliko da..
- Granular materialak: Kortexo granularra hautatuko da. Kasu honetan lurzoruarekin kontaktuan dagoen solairuan aplikatuko da isolamendua. Material honek dituen propietate termikoak onak dira Naturan aurkitzen den materiala izateko.

Erabilitako materialen propietateak era zehatzago batean zehazten dira kalkuluetan. Bertan bistaratu daiteke zein kriterioengatik hautatu diren material horiek zehazki.


##### 1.1.4.4.1. Isolamenduaren egituraketa

Bi alderdi bereiztuko dira, lurzoruarekin kontaktuan dagoen solairua eta itxitura bertikala.



Lehenengoan komentatu moduan kortxo granularra ipiniko da.

Itxitura bertikalean, material isolatzailea apartez egitura isolatzaileak jarriko dira. Hareharriaren kontra artile minera la doa kondukzio koefizientea oso baxua delako, hondoren aire ganbera eta azkenik pladur zaflak hormak osatzeko, hondoren ikusten da krokisa:



*Irudia 27 Proposatutako isolamendua, ezkerretik hasita: berezko horma, artile minerala, aire kamera eta pladurra*

Azkenik, proposatzen da leihoen aldaketa zubi termikoak ekiditeko eta era berean infiltrazioak gutxitzeko. Honela galera termikoak gutxituz.

#### 1.1.4.4.2. Aireztapena.

Kode teknikoari begiratuta legedian ezaten duen moduan, aireztapena tiro mekanikoa edota hibridoa behar du. Ekipo hauek jada garestiak direnez komenigarria da dirua inbertitzea eta aireztapena bero berreskurapenarekin ipintzea.

Lehenago ikusi den moduan sistema honek etxearen eskari termikoa gutxiagotzen du, luzaroan aurreztutako energiarekin amortizatzen dena.

Proiektuan erabiliko den sistema fluxu gurutzatuko tiro mekaniko bero berreskurapenarekin izango da.

Naiz eta erabilitako sistema ez den efizienteena paraleloarekin konparatua, sistema hau izaten da fabrikatzaileek gehiago erabiltzen dutena. Beraz, daukan efizientzia gehiago hori ez da konpentsatzen ekonomiaren aldetik.





Behin termika zehaztu den beroa lortzeko iturriak finkatuko dira, hauek bere efizientzia energetikoarengatik hautatu dira. Iturri hauek balioko dute bai UBS eta berogailu eskariak asetzeko. Iturri hauek era berean erabili daitezke edota bakarrik, berokuntza sistema desberdinekin.

Jarraian zehaztuko da zein bero iturri motak erabiliko diren

### 1.1.4.5. Geotermia

Berokuntza sistema printzipal nagusi moduan erabiliko da. Ikusi denez hainbat geotermia mota daude baina guztiek baldintza batzuen menpe bakarrik erabiltzen dira. Energia elektrikoa lortzeko erabili daiteke energia geotermikoa, baina hemen, proiektuan, aplikatuko den teknologia berogailu eta UBS eskaria asetzeko erabiliko da bero ponpa baten laguntzaz.

[Irudia 7 Penintsula Iberikoaren bero geotermikoa. zehazten duen moduan proiektua kokatua dagoen aldea interes gabekoa da bero geologikoari begira hitz. Zerk ezan nahi du honek? Ez dela posiblea tenperatura altuak lortzea lurzoruan tenperatura gradientea eskasa delako eta ekipo laguntzailea behar dela.

Beraz, tenperatura altuak lortu ezin direnez entalpia baxuko geotermia metodoa erabiliko da. 10m-tik behera sakontasun aldakorraren irudian [Irudia 14] agertzen den moduan, lurpeko tenperatura konstante mantentzen da; ez dio eragiten ingurugiroaren eta eguzkiaren erradiazioak denboran. Modu honetan lortzen da likidoa tenperatura konstantean ateratzea eta efizientzia handitzea.

Eskariaren, geologiaren eta erabilitako makinaren arabera lurzoruan sartu beharreko zunda zehaztuko da.



### 1.1.4.5.1. Zunda bertikala

Proiektuan zundaketa bertikalak erabiliko dira. Horizontalekin konparatuta aukera hobea da, hau gainera, enpresan esperientziak berretsi du. Beraz, dauden abantailak hauek dira:

- Zunda bertikalak 10 m baino gehiagora lurperatuta daude, normalean 120m - 160m-tara (karakterizazioaren arabera). Zundaren gehiengoa 10m-tik behera lurperatua dagoenez likidoren tenperatura konstantea izango da denboran. Aldiz, zunda horizontalak tenperatura aldaketak eragiten die, honela zunda kantitate gehiago behar da eta fenomeno honengatik lortutako efizientzia txikiagoa da.
- Zunda bertikalak leku gutxiagoa erabiltzen dute. Zundak lurperatuta gelditzeko behar diren zundaketak era bertikalean eginda daudenez hauen diametroen adina leku behar dute.
- Zunda bertikalak ez ditu eragiten lur mugimendurik. Sortutako detritus-ak kudeatu behar dira soilik. Detritus bolumena zulaketan erabiltzen den buruaren diametroa eta zulaturako luzeraren arabera izango da. Beste aldetik, zunda horizontaletan lur mugimendu handiak egin behar dira. Zunda 2m eta 3m artean lurperatzen dira obra-berria ez den lekuetan (sakonagoak izaten dira baldin eta zimentuetako lubetak profitatzen badira). Honek eragiten du prezioaren igoera erabilitako makineriagatik eta segurtasunagatik.
- Zunda bertikalek azalera libre handia uzten dute. Zunda bertikalek ez ezik, zunda horizontalek ezingo da azalera landatu, sustraiek tutuak kaltetu dezaketelako eta beroa garraitzen duen likidoa izuri daitekeelako.

Laburbilduz zunda bertikalak erabiliko dira merkeagoak, efizienteagoak, azalera gutxiago erabili eta burutzeko errazagoak direlako.

Noski, zirkuitu itxian lan egiten dute. Ez da sistema irekirik kontuan hartu ur emari kantitate handia behar duelako eta meatzaritza ustiapenean sartzen delako (B motako baliabideak 22/1973 meatze legearen arabera)



### 1.1.4.5.2. Makina

Tenperatura saltoa lortzeko bero ponpa erabiliko da. Tenperatura konstantean lurpetik datorren likidoa bero ponparekin beharrezko tenperatura igoko dira 1.1.1.4.1.2Atalean deskribatu den moduan.

### 1.1.4.6. Solar termikoa

Proiektuan eguzkiaren energia termikoki eraldatuko da etxebizitzaren UBS eskariaren horniketaren laguntzarako. Merkatuan dauden ekipoek UBS horniketarako bideratuta daude teknologia honek lortzen dituen tenperatura handiengatik.

Kontuan edukita, plaka termiko laua hautatuko da bulkada mekanikoarekin. Naiz eta bulkada termikoak hobeago dirudien ere, sistema honek ainbat ez behar ditu.

Bulkada mekanikoarekin likido emari konstantea ziurtatzen da. Aldiz, bulkada termikoarekin likidoa behar den tenperaturaraino berotu behar da tiroa egoteko eta gerta daiteke tiroa konstantea ez izatea tenperatura nahikorik ez dagoelako. Bultzada termikoak ez duenez ziurtatzen tiro konstantea ez da erabiliko.

Panelak teiltuan ipiniko dira eta zehaztuko da zein angelutan ipintzen diren baldintzen arabera.

### 1.1.4.7. Biomasa

Proiektuan biomasak jarduera lagungarria izango du berokuntza sisteman. Berokuntza sistemaren arabera eta geroago bidezko dena 1.2.1.6.4. Atalean, airea erabiliko da beroa suspertzeko.

Erabilitako erregai mota pellet-ak izango dira. Egurrarekin konparatuz ainbat abantaila daukate:



- Makinaren modulazioa ahalbidetzen dute, hau da, bero karga erregula daiteke era errazago batean, pellet kantitatea kontrolagarriagoa delako.
- Erreketa temperatura txikiagoa da eta ondorioz makinaren bizitza denbora luzatzen da.
- Ekipoak txikiagoak dira eta erregaia garraiatzeko errazagoa.
- Erosi daiteke erregaia edo norberak etxean egin basoko sastarrekin.

Eraikinaren egituraketa aztertuz, dagoen sutea aprobetxatuko da keen instalazioa daukelako jada. Horretarako *insert* erako galdara jarriko da. Izena ezaten duen moduan galdara paretan barruan sartzen da, kasu onetan suteak duen lekuan.



## 1.1.5. Proiektuaren azalpena

Atal honetan proiektua nola gauzatuko den deskribatuko da, 1.1.4 atalean hautatutako sistemak zein antolamendu jarraituko duten eta etxebizitzan nola geldituko diren integratuta euren artean.

Era honetan UBS eta berokuntza sistemak bereiztuko dira, baita termikaren hobekuntza ere. Termikaren hobekuntzan 1.1.4.4 atalean aipatutako moduan proposatutako materialak eta egituraketa plazaratuko dira, ez da muntaia teknirik ikusiko ez delako kompetentzietan sartzen.

### 1.1.5.1. Termikaren hobekuntzaren azalpena

Etxebizitzaren bi alderditan aplikatuko dira hobekuntzak: Itxitura termikoan eta aireztapen sisteman. Hauen funtsa lehenago ezandakoaren arabera eskari termikoa jaistea du helburu.

#### 1.1.5.1.1. Itxitura termikoa.

Hobekuntzak 3 elementu izango ditu, hauen artean bi elementu finko gelditu dira, aire ganbara eta pladur zaflak. Isolamendua aldiz, 1.2.1.5 Atalean aztertu egin da efizientzia eta ekonomia aldetik zein loditasuna den komenigarria.

Baserriaren berezko itxitura termikoa eskaera termiko handia dauka 1.2.1.4Atalean komprobatu den moduan. Eskaera eutsiezina denez gaur egungo egoerarako eta jarraitutako irizpideentzat honen hobekuntza gauzatuko da.



Itxitura hobetzeko elementuak ondoren deskribatuko dira, hareharriaren kontra aipatuko ordenan jarriko dira elementuak Irudia 27 Proposatutako isolamendua, ezkerretik hasita: berezko horma, artile minerala, aire kamera eta pladurra [Irudia 27] ikusten den moduan.

- Artile Minerala

12 cm erabiliko dira. 1.2.1.5 Kalkuluetan ikertutakoaren arabera balantze bat egon behar da amortizazio ona izan dadin. Lehenago deskribatu moduan artile minerala isolamendu merkatuan eskaintzen duen erresistentziarik termiko baxuena du. Baita ingurugiroarekiko inerteia da. Hau arkitektoak aire ganbara eta gero prestatu duen egitura ipiniko da.

Erresistentzia termikoa (12 cm):  $2,962 \text{ m}^2 \cdot \text{K} \cdot \text{W}^{-1}$

- Aire ganbera

Atal hau 5cm-koa izango da. Izenak ezaten duen moduan aire tarte bat da hareharriaren artean itxita dagoena airea irten ez dadin konbekzioarik ez gertatzeko. Elementu hau antzinako etxeetan ez zen erabiltzen, baina gaur egun asko erabiltzen den elementua da.

Erresistentzia termikoa (5cm):  $0.18 \text{ m}^2 \cdot \text{K} \cdot \text{W}^{-1}$

Gainerako elementuak eusteko erabiliko diren materialak arkitektoak jakinaraziko ditu. Azkenean aire ganbera ipintzerakoan, datozen konponenteak eusteko egitura behartzen dute erabiltzera.

- Pladur lauza

2cm-ko lauza jarriko da. Elementu honetan ez dira propietate termikoak kontuan artzen baizik eta pladurra ipintzen da paretak osatzeko eta itxituraren iragazkortasuna bermatzeko. Pladurrak erresistentzia termiko onargarria daukanez, isolamenduan eragingo du.

Erresistentzia termikoa (2cm):  $0.08 \text{ m}^2 \cdot \text{K} \cdot \text{W}^{-1}$



Azkenik, dauden zubi termikoak eta infiltrazioak ekiditeko leihoak berritzea proposatzen da. Horretarako leiho bikoitzak jarriko dira egur markoarekin eraikinarekin bat egiteko. Egindako estimazioen arabera honek infiltrazioen %14 (%10-etan itxirik infiltrazioak) gutxituko lituzke eta termika hobetuko luke.

### 1.1.5.1.2. Aireztapena.

Sartutako eta irteerako airea bero trukaketa Aldez markako ekipa betekin egingo da. *InspirAir Home Classic SC370*-rekin. Daukan efizientzia %89-koa da, oso hondo dena fluxu gurutzatuko makina batentzat. Ekipa honek bero berreskuraketa apartez hainbat abantailak ditu.

Filtro sistema ditu bere baitan era honetan kanpoko airea iragazteen da kalitatea hobetuz. Modu honetan mikrobioen, lore-hauts, eta partikula finen %99 iragazi ditzake, etxe barruko airea kanpoko bano osasuntsuagoa eginez.

Aipatzekoa da baita gailuak oso zarata gutxi egiten duela beste ekipoekin konparatua, 40Db gutxi gora behera. Honen fluxuak eta tenperatura egokia kontrolatu da telemando batekin.



Irudia 28 *InspirAir Home Classic SC370*



Taula 3 InspirAir Home Classic SC370 Ekipoaren ezaugarriak.

| <i>InspirAir Home Classic SC370</i> |                          |
|-------------------------------------|--------------------------|
| <b>Elikadura</b>                    | 230V-50Hz<br>monofasikoa |
| <b>Intentsitate max (A)</b>         | 2                        |
| <b>Potentzia max (W)</b>            | 230                      |
| <b>Emaria (m<sup>3</sup>/h)</b>     | 360                      |
| <b>Presioa (Pa)</b>                 | 50                       |
| <b>Efizientzia</b>                  | %89                      |
| <b>Hoditeria Ø (mm)</b>             | 160                      |

Aireztapena osatzeko etxe barruko aire hartuneak eta irteerak zehaztuko dira. 1.1.6.1.1 Atalean aipatzen den moduan, kode teknikoari begira DB-HS3 airea gela hezeetatik hartuko da, sukaldea eta bainuak, eta aire emari berria beste geletan egingo da. Ekipoaren muntaia 29. Irudian ikusi daiteke.





29. Irudia Aireztapenaren muntaia

Azkenik, zulorik ez egiteko, baserriak teilatuan horma bertikal artean dauden zuloak baliatuko dira kanpoko tutueria jartzeko. Beraz makina bigarren solairuan kokatua egongo da.

Etxebizitzaren bero eskariak bitan bananduko da, alde batetik berokuntza sistema eta beste aldetik UBS-a. Naiz eta bereiztuta egon ekipo batek biak hornitu ditzake. Jarraian UBS eta berokuntza sistemak osaketa aztertuko da laburki ondoren energia sistemak zehatzago ikusteko.

### 1.1.5.2. Berokuntza sistemaren azalpena

Bi sistema edukiko ditu proiektua, geotermia eta biomasa, asken hau *pellet*-ak erabiliz. Sistema hauek beroa etxebizitzara transmititzeko bi era desberdinetan egingo dute.

Biomasa galdara hautatu da airez egongela printzipala berotzeko sistema lagungarri moduan. Gehien erabiltzen den egongela berokuntza hornitzea du helburu sistema geotermikoa beti martxan egon ez dadin. Gainera modu honetan instalazioa errazagoa da.



Ponpa geotermikoa izango da sistema nagusia. Berokuntzarako sistema hidrauliko bakarra denez ez da behar depositu metatzailerik. Honek eragiten du era zuzenean likido beroa ekoiztea. Gainera, geotermia tenperatura baxuetan ekoizten du beroa, beraz ez da komenigarria erradiadore tradizionalak erabiltzea beroa sakabanatzeko. Beroa transmititzeko etxebizitzatik zoru irradiantea erabiliko da.

Bi sistemak energia anitzeko depositu batean inplementatzea aurreikusi zen, baina arazo bat dago sistema horretan. Aire bidezko sistema jarri da geotermiaren errendimendua ez deuseztatzeko. Geotermiak tenperatura baxuetan lan egiten du zoru irradiantea hornitzeko, gainera tenperatura altuak lortzeko ez da komenigarria geotermia. Beraz, energia anitzeko depositu bat ipiniz gero, zeharo handia izango da, biomasa bidezko berogailuak tenperatura handiak lortzen dituelako eta beroa disipatu behar duelako. Ondorioz, biomasa bidezko beroketa martxan jartzen ez denean geotermia ur bolumen handia berotu beharko du, beroketa denbora handia izanda eta despendio asko sorraraziz. Beraz, problema hau suertatzeko aire bidezko biomasa klimatizazioa hautatu da.

Lehenago ezandakoaren arabera, geotermia ponpak ekoiztutako beroa zoru irradiantez egiten da, zegidan sistema hau laburki azalduko da.

### 1.1.5.2.1. Zoru irradiantea

Beroketa zoru irradiantearen bidez egingo da. 1.2.1.8 Atalean ezandakoaren arabera, metodo hau hoberena dela ondorioztatu da etxerako berokuntza sistemarako.

Zoru irradiante honek hainbat atal ditu 66. Irudiak erakusten duen moduan, behetik gora ondorengo elementuez osatzen da:

- Isolamendu panela (Kortxo): Poliestireno hedatuaz (EPS) osatzen da. Forjatuaren gainean jartzen da. Erabiltzen den mota hezetasunaren kontrako kapa bat du, ura sartu ez dadin. Kortxoak irtenak ditu hodiak era egokian bideratzeko.




30. Irudia Poliestireno hedatuko panela.

- Hoditeria: Hauetatik likido bero-jariatzailea doa (ura). Hodiak polietileno erretikulatua izanten (PEX )dira, oxigenoaren kontrako kapa bat duena burbuilak ez eratzeko. 16 mm-ko diametroa dutenak.



31. Irudia PEX Hodia

- Kolektoreak: Hauen bidez ponpa geotermikotik datorren likido bero-jariatzailea geletatik bidaltzen da. Hauek ahalbidetzen dute solairu desberdineko kontrola.



32. Irudia Kolektoreak

- Anhidrita morteroa: Zoru irradianterako aurrerapen handia izan da, bero transferentzia hona dela eta bere propietate fisiko-kimikoengatik. Mortero konbentzionalarekin alderatuta geruza finagoa eta transmisio hobegoa lortzen da. Zenbat eta geruza finagoa transmisio hobegoa da, baina mortero konbentzionaletan arrailak sor daitezke.

### 1.1.5.3. UBS

Ur bero sanitarioa lortzeko sistemak bi izango dira, ponpa geotermikoa eta solar termikoa. Azkena eguzkiaren mugaketagatik sistema laguntzaile moduan erabiliko da. Beraz, geotermia izango da sistema printzipala.

Bi bero iturriek beroa UBS energia anitzeko biltegi batera bidaltzen dute. Tankearen barruan ur sanitarioa biltegitzen da nahi denean erabili ahal izateko. Tankeak bi hodibihur ditu, bero trukagailuez jokutzen dutenak beroa transmitituz urari. Bai geotermiatik, bai solar



termikotik datorren likidoa hodibihurretatik pasatzen da ur sanitarioa berotzeko zirkuitu itxi batean.

Lortu nahi da solar termikoko ekipoek ahal duten bezain beste energia ekoiztea energia dohainik delako, beraz sistema geotermikoak lan gutxiago egin behar badu hobeto.

1.1.1.4.1. atalean ikusi daitezke zin diren eguzki baldintzak.

Nahi adina panel jarri ahalko litzatezke ur bero sanitarioaren eskaria asetu arte. Baina klimatizazioan gertatu den problema berdina dago hemen. Eguzki plaka termikoek temperatura handiak lortzen dute eta beroa disipatu behar dute deposituaren temperatura asko igo ez dadin. Beraz UBS tankea ezin daiteke handiegia izan baldin eta edonoiz geotermia bakarrean lan egin behar badu. Arrazoi honengatik panelak murriztu dira eta UBS eskari guztia ez da hornitu. Gogorarazi sistema honek gauen ez duela energiarik ekoizten.

### 1.1.5.3.1. Energia anitzeko depositua.

Bero ur sanitarioa biltegitzeko erabiliko da. Honek bi jatorri ezberdinen bero trukaketa ahalbidetuko du, honela etxebizitzan erabiliko den ur beroa ekoiztuko da eta biltegitratuko da nahi den momentuan itxaron barik erabiltzeko.

Depositua bete behar dituen baldintzak 1.2.1.1. Atalean, baldintzen karakterizazioetan kalkulatu da. Egun baterako UBS horniketarako 196 l behar dira, eta bi energia iturri edukita aukeratu behar den depositua 200 l-koa izan behar da hiru zirkuituekin.

Barrualdera begira Irudia 33] ikusten den moduan, bi hodibihur ditu. Hauetan konektatuko da bai ponpa geotermikoa eta eguzki plaka termikoak. Zirkuitu printzipalean geotermia joango litzateke eta hirugarrenean solar termikoa.

Bigarren zirkuitua deritzona depositu printzipala da. Bertan dagoen likidoa (ura) serpentinek berotzen dute euren beroa transmitituz. Beraz transmisioa modu horretan egiten



da, zirkuitu itxiak izanik eta likidoak euren artean nahastu barik. Normalean serpentinetatik jariatzen den likidoa glikol nahastea izaten da.




*Irudia 33 . Ur bero sanitariorako VS 200 IP depositua, hiru zirkuituekin.*

Behin azalduta nola antolatzen den UBS eta klimatizazio sistema proiektuaren bero energia iturriak azalduko dira.

## 1.1.5.4. Integratutako sistemak

### 1.1.5.4.1. Geotermia

Berokuntza eta UBS sistema hornituko duen sistema printzipala da. Bero ponpa batez osatzen da zeinetan bero aportazioak lurpeko zundetatik jariatzen den likidoak ematen dion. Bistaratzea laguntzeko elementu guztien antolaketa honakoa da:



Irudia 34 Instalazio geotermikoaren itxura etxebizitza batentzako.

[1] Zundaketa bertikalak non tutuak (zundak) lurpean sartzen diren beroa batzeko, [2] bero ponpa, zundaren likidoaren ekarpenak lagunduta beharrezko beroa ekoizten du eta [3] etxebizitzan berotzeko sistema.

Beraz sistema geotermikoan bi alderdi bereiz daitezke, alde batetik bero ponpa eta beztetik zundak. Osagai hauek desberdinak direnez euren artean bananduta azalduko dira, eta konexioak bero ponpan zehaztuko dira.

Ponpa geotermikoa proiektuaren sistema printzipala denez eta honen aukeraketa lortutako datuek baldintzatzen duten 1.2.1.6.1 Kalkulo atalean dago sistemaren azalpena eta arrazoiketa.

#### 1.1.5.4.1.1. Zundak.

Hautatu den moduan zunda bertikalak erabiliko dira bero ekarpen bat emateko makinari. Zundak, zundaketekin eginiko zuloetan sartuko dira, estimatu den arrokaaren W/m-ren arabera behar den berorako. Modu honetan bi zundaketa 159m jaitsiko dira 1.2.1.6.2. Ataleko kalkuluen arabera.

Bi alderdi bereiztuko dira atal honetan, zundaketa sistemaren osagaiak eta zundaketa gauzatzeko prozedura. Lehengoan zundaketa sistemak dituen elementuak ikusiko dira eta bigarreanean zein den zundaketa prozesua.

Zunda



Lurpean sartzen diren tutuak, hauetatik likido kaptadorea jariatzen da. Sistema geotermikoaren elkar trukaketa termikoa gertatzen den lekua da. Hauek polimeroz eginda daude, baina, jakina polimero bereziez bero transmisioa hondo egin dadin.

Aukeratutako zunda berezia da, zunda doblea aukeratu dira bero transferentzia hobetu dadin, baita ponpak jasaten duelako sistema hau.

Aukeratutako sundak RAUGEO PE100 dira. bi U formako zunda geotermikoa du, 2 U formako zundekin osatutakoa, fabrikako soldadurak oso sendoak eta trinkoak direnak.

#### 1.1.5.4.1.2. Jariakin bero eramailea

Bero transferentziaren fluidoa lurzoruko lurperatuta dagoen bero trukagailuaren barruan zirkulatzen duen izotz kontrako likidoa da. Lurraren beroa xurgatzeko edo errenditzeko arduraduna da ponpara bidaliz. Sistemaren atal oso garrantzitsua da eta zenbait baldintza bete behar ditu: izozte puntua aproposa eduki behar du gunearen muturreko tenperaturen arabera, beraz, ez da inoiz izoztuko eta hodiak kaltetuko. Propietate termodinamiko onak izan behar ditu bero-trukea eragotzi ez dezaten eta zirkuituan ondo jariatu behar da. (biskositate ona).

Sektorean erabiltzen diren bi gehigarri hauek dira: etileno glikola eta *propilenglikol*. Etileno glikola kolore eta usainik gakoa eta uretan disolagarria. Korrosioaren inhibitzaile batekin, *etilenogliko*-larekin egindako soluzioak hegazkortasun txikiak dute eta sukoitasun arrisku txikia dute. Desegokia da toxikoa delako eta kontu handiz tratatu beharra dagoelako. Bestalde, *propilenglikol*-a kolore, zapore eta usain gabea da eta uretan nahasgarria da. Bere abantaila nagusia da etileno glikolaren antzeko propietate termodinamikoak izatea, toxikoa izan barik. Izan ere, AEBko Elikadura eta Droga Administrazioa (FDA) zehaztu du *propilenglikol*-a "orokorrean erabiltzeko segurua" (GRAS), elikagaietan, kosmetikoetan eta sendagaietan erabiltzeko. Batzuetan, potasioaren karbonatoa ( $K_2CO_3$ ) ere erabiltzen da, nahiz eta korrosioaren arazok korrosioarekiko materialak erabiltzea beharrezkoa izan, proiektuaren kostua areagotzen dutenak.





Aurreko guztiarengatik, kasu honetan, % 25 *propilenglikol*-a erabiliko da, ez baita toxikoa, eta azkenean jario batek ez du ingurumen-arazoak sortuko. Kontzentrazioa handia da estatuaren hegoaldeko instalazio batekin alderatuta bero aportazio handiagoa behar delako. Zenbat eta ehuneko handiagoa izan *propilenglikol*-a, orduan eta biskositate handiagoa izango du. Saihestu nahi diren biskositate handiko efektuak bi dira: lehenik eta behin, karga-galerak handiagoak, birziklatze-ponpek kontsumo elektriko handiagoa lortzen dutelako eta, beraz, COP txikiagoa / EER; eta, bigarrenik, erregimen zurrunbilotsua sartzeko zailtasunaren hazkundera, fluidoaren eta lurraren arteko tenperatura egokia trukatzeko. *Propilenglikol*-aren ezaugarri eta propietate nagusiak Taula 4] laburbiltzen dira.

Taula 4 *Propilenglikol*-aren ezaugarriak.

| <b>Osaera eta ezaugarri fisikoak</b> |  |
|--------------------------------------|--|
| Formula                              | C <sub>3</sub> H <sub>8</sub> O <sub>2</sub> |
| Pisu molekularra                     | 76,10 g/mol                                  |
| Itxura                               | Likidoa                                      |
| Kolorea                              | Kolore gabekoa                               |
| Usaina                               | Berezia                                      |
| pH                                   | 6 – 8 (100 g/l H <sub>2</sub> O, 20 °C)      |
| Irakite puntua                       | 188 °C                                       |
| Sugar puntua                         | 371 °C                                       |
| Fusio puntua                         | -59 °C                                       |
| Dentsitate puntua (20 °C)            | 1,04 g/cm <sup>3</sup>                       |
| Lurrun presioa (20 °C)               | 0,11 hPa                                     |



### 1.1.5.4.1.3. Agregakina

Zunda eta zuloaren arteko hutsuneak estaltzeko erabiltzen den materiala da. Material honek adina eroankortasun termikoa eta moldatzeko erraz izan behar du. Baita propietate hauekin lotua beraren kostua.

Proiektuan silize legarrak erabiliko dira naiz eta material asko erabili daitezkeen, area soltetik silizesko motrailuraino. Esperientziaren arabera portaera hoberen duen materiala da; ura gehitzen zaionean gelditzen diren mikro hutsuneak betetzen dira eta bero transferentzia ezin hobea lortzen da.

$\text{SiO}_2$  egitura du, hau da, oxido silikatoa. Silizeak eroankortasun ona daukanez, ziurtatzen da beroaren garraioa. Honetaz aparte lurpeko urak bertatik pasatu daitezke, aldiz bentonita motrailuak baino.



35. Irudia Silikato agregakina.

### 1.1.5.4.1.4. Zundaketaren gauzaketa.

Laburbilduz lurrean zulo bat egitean datza. Zulatzeko behar diren teknikak eta erabilitako materialak arroken propietateen menpe daude. Orokorrean mota hauetako zundaketak teknika berdinekin egiten dira eta ez-behar teknikoak ez edukitzeko 150m-tik behera ez da jaisten, sakonera horietatik beherago zailtasun teknikoak direla eta. Ez behar teknikoak



ekiditzeko komenigarria izango litzateke TRT entsegua egitea, baina instalazio txikietan ez du merezi honelako ikerketarik egitea.

Zundaketa egiteko zulaketa makina batez baliatuko da, mailua hondoan duena. Buruan duen makinarekin alderatuta, honek maniobratzeko errazagoa da, efizientzia handiagoa du arroka zurrunengan potentzia dela eta, eta barilak gutxiago sufritzen dute. Azkenean ekipo honekin errazagoa izango da lan egitea.

Arroka zurruntasunaren arabera bi mailu erabiliko dira, handiena 10"-ekoa arroka edo zoru bigunentzako eta 8"-koa arroka zurrunentzako. Normalean zundaketaren ibilbide gehiena 8"-koarekin egiten da. Mailu hauek botoizko burua dute eta konposaketa %50 diamante eta %50 *widia* da, ondoren ikusiko dira.



36. Irudia 10" botoizko burua.

Mailuaren pistoia airez eragingo da, modu honetan *detritus*-ak modu egokiagoan kanporatuko dira baita. Ura ez da erabiliko talka termikoa ekiditeko eta mailuaren bizi



iraupena luzatzeko. Azkenik mailuaren hozketa bariletatik doan olioak egingo du. Makina ondoren ikus daiteke:



37. Irudia Zundaketa makina mailuarekin.

Behin erabiliko den makina definitua gauzatze faseak laburbilduko dira mailua lurrean sartzen denetik zunda dagokion tokian gelditzen den arte.

#### Faseak

1. Fasearen funtsa lehen metroko materiala ziurtatzean datza. 10<sup>''</sup>-ko mailuarekin hasi egiten dira lanak. Mailua lurrean sartzen da arroka zurruna edo geoteknikoki ona dena topatu arte. Sakonera hauek 3m-tik (egoera onean) 60m-ra (egoerarik txarrena) joan daitezke. Fase hau lurreko arrokaren araberakoa da eta ezin daiteke era zehatzean aurreikusi. Behin arroka zurruna ikutzen duen mailua ateratzen da eta *kamisak* jartzen dira zuloa eusteko.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



38. Irudia Ezkerrean zundaketa lehenengo metroetan, kolore iluneko ahutza materia organiko kantitateagatik, eskuman, kamisak ezarpena.

2. Fasean 8"-ko buruarekin gelditzen den ibilbidea zulatzen da. Diametro honen arabera doazen zunden diametro maximoa zehazten da. Ezan moduan buru honek barneratzeko erraztasun handiagoa duenez hau erabiltzen da. Desiratutako sakonera lortuz *barilje* guztia kentzen da *kamisak* utziz. Fase honetan gertatu daiteke barrunbeak aurkitzea arroken arabera eta ur kantitateen arabera. Barrunbe hauek estaldu beharko lirateke zundaketaren prezioa handiagotuz.




*39. Irudia Irudia. 8" mailua, behin barilak atera ondoren*

3. Fase honetan zundak sartzen dira. Horretarako altzairuzko hil bat erabiltzen da. Grabitateren indarrez bera bakarrik jaisten da. Behin sartuta daudenean urez betetzen dira zundak pisua hartu ditzaten, era honetan bere lekuan gelditzen dira.



40. Irudia Ezkerrean zundan kokatzen den hila, eskuman zundaketan zunda sartzen.

4. Azkenengo fasean agregakina gehitzen zaio. Gelditu den zuloa estaltzeko eta eroankortasun termiko optimoa lortzeko silize legarrak gehituko dira lehenago ezan moduan. Behin amaitu denean lan guztiak kamisak kentzen dira egoera geoteknikoa optimoa delako.



41. Irudia Agregakinen jaurtiketa, baita ere ikus daiteke zundetan sartutako ura.

#### 1.1.5.4.2. Solar termikoa

Kalkuluen arabera instalazioak 2 panel edukiko ditu. Hauek UBS hornikuntzarako ekipo laguntzaileak izango dira. Sisteman panelak dira elementu nagusienak eta aparte, bulkada ekipoak, segurtasun sistema eta UBS depositua.

Beharrezkoa da aipatzea solar termikoan komenigarria dela gehiegizko dimentsionamenduak ekiditea ostantzean arazoak egon daitezke gain-beroketarekin. Sistema honek tenperatura altuak lortzen ditu, 90°C-75°C inguru, eta UBS deposituko ura kontsumitzen ez den momenturako *alibiadero* bat jarri behar da beroa disipatzeko, Gerta daiteke sistema hau jartzen ez bada sistema zapuztea.

Plakek, bero trukaketa UBS deposituan editen dute barruan daukan hodibihur batez. Era honetan sistema itxia da, paneletatik jariatzen den likidoa ez da nahasten deposituan. Hau ziurtatzen du osasungarritasuna. Sistema itxiko diharduen likidoa glikol eta uraren arteko nahasketa da.





Plakak teilatuan ipiniko dira honekiko paralelo. Naiz eta inklinazio optimoa ez zizan adina inklinazioa dauka (25°-30°) efizientzia hona izateko. Honen arrazoia estetiko eta funtzionala da. Estetika aldetik panelak ez dira nabarmentzen, eta funtzionala, askoz errazagoa da muntaia laua ipintzea inklinatua baino, gainera suposatzen duen W irabaziak ez du merezi izaten.

Dauden elementu aipagarrienak ondoren zehaztuko dira era zehatzago batean

### 1.1.5.4.2.1. Panela

Kaptadore laua Delpaso Solar enpresak egina hautatu da, VSH/VSHJ 2600 modelo bertikala ain zuzen ere. Kaptadoreak efizientzia oso ona dauka, gainera 10 urteko garantia hematen du fabrikatzaileak, honek fidagarritasuna hematen du produktua erosterakoan.

5. Taula VSH/VSHJ 2600 panelaren zehetasunak



|   |        |
|---|--------|
| <b>Azalera erabilgarria (m<sup>2</sup>)</b> | 2.33   |
| <b>Azalera totala ( m<sup>2</sup>)</b>      | 2.58   |
| <b>Pisua (kg)</b>                           | 34.4   |
| <b>Likido bolumena (l)</b>                  | 1.34   |
| <b>Presio max (bar)</b>                     | 10     |
| <b>Emari maila (l/h* m<sup>2</sup>)</b>     | 30-115 |
| <b>Potentzia (W)</b>                        | 1799   |
| <b>Errendimendu optikoa (%)</b>             | 77.2   |

42. Irudia VSH/VSHJ 2600 panelaren zehetasunak




#### 1.1.5.4.2.2. Egitura metalikoa.

Panela kokatzeko egitura da egitura hau teiltuarekiko paralelo jartzen da lehenago komentatu moduan. Dagoen inklinazioa nahikoa dela estimatzen da.

#### 1.1.5.4.2.3. Ponpa

Likido emaria zirkuitotik mugitzeko behar den ekipoa da. Ponpatik aparte manometroa eta termometroa dauka eta hainbat balbula gainezkabiderako eta hedapen edalontzirako. Ekipoa poliestirenoz eginiko karkasa batez isolaturik dago.



43. Irudia Pompa bultzatzailea.

#### 1.1.5.4.2.4. Gainezkabidea

Sistemaren beroa disipatzen ez denean likidoaren tenperaturak igotzen dira prezioa handituz. Egoera hau pairatzeko presioa igotzen denean balbula honek likidoarentzako gainezkabidea bilakatzen da. Balbula ez balego prezioa handituko zen sistema eztanda egin arte. Beraz, elementu fundamentalak da.



44. Irudia Segurtasun balbula.

#### 1.1.5.4.2.5. Hedapen edalontzia

Proiektuan 60 l-ko hedapen edalontzia jarriko da. Elementu honek likido beroaren eta hotzaren arteko presio diferentziak maneiatzen ditu orekatzen diren arte. Berotutako likidoa prezio altuago dauka hotzagoak baino, sisteman desoreka gertatuko luketena beraz elementu hau jartzen da presioak orekatzeko. Gainezkabidearekin batera segurtasun elementuak osatzen dute.



45. Irudia Hedapen edalontzia.

#### 1.1.5.4.2.6. Purgatzailea

Zirkuituan harrapatuta gelditzen den airea kanporatzeko erabiltzen da. Airea bero eroapen tzarra duenez komenigarria da hau kentzea. Normalean sisteman eratzen diren mikroburbuilak kanporatzeko erabiltzen dira.

Elementu hauek naiz eta hemen deskribatu beste atal batzuetako sistemek ere daroate.

### 1.1.5.4.3. Biomasa

*Pellet* bidezko berogailua jarriko da, berokuntza airearen bitartez emango dena eta honek paper laguntzailea izango du. Beroa airez transmititzen denez ez du etxebizitza guztia berotzen, sistema pentsatua dago gehien erabiltzen den egongela berotzeko.

Denbora gehiago pasatzen den lekuan egongela eta sukaldea dira, beraz hemen jarriko da berogailua. Era honetan berogailuak funtzionatuko du geotermiaren ordezkuntsumoa gutxituz eta behar denean geotermia sistema erabiliko da bai logelak eta gainerako egongelak berotzeko.

*Pellet* berogailua sukaldean dagoen behe suaren ordezkuntza jarriko da, dagoen zuloa eta ke irteerak profitatzeko, era honetan ez da behar tximinia berria egitea, kanalizazioa baizik. Dagoen zuloan beraz *insert* bat jarriko da. Ondoren elementuak ikusiko dira:

#### 1.1.5.4.3.1. *Pellet* berogailua

*Pellet* erregeaiez eta aire bidezko *Insert*-a aukeratuko da. LaNordica fabrikatzaile italiarren makina aukeratuko da. Hematen duen prestazioengatik aukeratzen da baita daukan errendimenduagatik.

Komentatu den moduan nahiago da potentzia gehiagoko berogailua ipintzea, etxea azkarrago berotzeko eta egon daitezkeen bezeroen kexak ekiditeko.

6. Taula Berogailuaren zehaztasunak.

|                                 |        |
|---------------------------------|--------|
| <b>kW</b>                       | 3.2-11 |
| <b>Berokuntza m<sup>3</sup></b> | 315    |
| <b>η (%)</b>                    | >90    |
| <b>Depositua (kg)</b>           | 16     |



|                         |         |
|-------------------------|---------|
| <b>Elikadura (kg/h)</b> | 0.7-2.5 |
| <b>Irteera Ø (mm)</b>   | 80      |
| <b>Pisua (kg)</b>       | 170     |



46. Irudia LaNordica Comfort Plus

#### 1.1.5.4.3.2. Termostatoa

Ekipo honek kontrolatuko du berogailua. Funtzioa nahi den tenperatura zehaztea izango da eta desiratutako tenperatura heltzen denean modulazioaren bitartez erregai karga jaisten du giro horretan mantendu dadin.

Berogailuaren marka berdineko termostatoa hautatu da bateragarritasun problemak ez edukitzeko.

#### 1.1.5.4.3.3. Keen Kanalizazioa

Tximiniaren tartea egina dagoenez tutak pareta sinplekoak izango dira eta Ø80 mm-koak. Hasieran sekzio moldagarria izango du eta gelditzen dena sekzio zuzen zurrinak izango dira. Totalean 7 m tutueria jarriko dira keak kanalizatzeko.

## 1.1.6. Legedia

### 1.1.6.1. Araudiak

Era honetako proiektu bat gauzatzeko, kontuan hartu behar dira araudi batzuk, behean zehazten direnak.

#### 1.1.6.1.1. Eraikinaren Kode Tekniko Estandarra

Arau bat da zeinetan "Eraikuntzaren Araudiaren azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritako eraikinaren oinarrizko baldintzak betetzen dituen, pertsonen segurtasuna bermatzeko, gizartearen ondo egona, eraikinaren iraunkortasuna eta ingurumena babestea".

Honetan kontuan hartzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91 / EE Zuzentarauak "eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzkoa da, Eraikuntza Kode Teknikoaren eskakizunak sartu direnak. Eraikuntzako eraginkortasun energetikoaren eskakizunei dagokienez, Zuzentarau honen 4., 5. eta 6. artikuluetan ezarrita datoz".

Kodea bi zatitan banatzen da:

- Oro har, hornidurak eta eskakizunak eraikinak bete behar dituztenak.
- Oinarrizko dokumentuak, zeinen erabilera egokia bermatzen baitute oinarrizko eskakizunak betetzea.

Horretaz gain, "Kodearen aplikazioaren osagarri gisa, onartutako dokumentuaz aparte dokumentu tekniko esternoa eta independenteak eratzen dira, honen bidez, zenbait baldintza betetzea errazten du eta eraikinaren kalitatea hobetzen laguntzen du.

Hauen oinarria, "Konstrukzio teknika ezberdinen jakite sendoa oinarritzat hartuta, oinarrizko eskakizunak eta horien kuantifikazioa karakterizatu behar dira, eraikinen mugen balioak ezarriz, eta hauen erabilerak betebeharren aplikazioaren erraztasuna bermatzea du



helburu". Oinarrizko eskakizunak argibideei, araudiari edo bestelako arau teknikoiei erreferentzia edo erreferentzia izan ditzake, materialen zehaztapen eta kontrolerako, proba-metodoei eta datuei edo kalkulu-prozedurei dagozkienak".

Behin definitua zein kode teknikoa zertan oinarritzen den, proiektuak zein dokumentu erabiliko diren zehaztuko da. Dokumentu hauek bi izango dira, osasungarritasuna eta aurrezpen energetikoaz deritzotenak :

- DB-HB, osasungarritasuna bermatzen duen dokumentua da. Honetan eraikuntzan zein baldintza bete behar dituen zehazten du. Proiektuaren kasuan dokumentuaren HS 3 eta HS 4 atalei dagozkion arauak beteko dira. Atal hauek etxebizitzako airearen kalitatea bermatzen du eta ondorengoak ur bero sanitariorena. Atal honetan ez da landuko zein diren limiteak, hauek 1.2.1.3 atalean kalkuluak egiterakoan zehaztuko dira.
- DB-HE, Energia Aurrezteko Oinarrizko Dokumentua. Izena ezaten duen moduan energia aurrezteko baldintzak zehazten dira, honela, proiektuaren helburua gauzatzuz. Dokumentu honetaz ondoren sakonago ikertuko da, era honetan ikerketa egin da, bai, baina ez dira baldintza guztiak kontuan hartu.

#### 1.1.6.1.2. Energia aurrezteko oinarrizko dokumentua (DB-HE)

CTE-an aurkitzen diren Oinarrizko Dokumentuen artean, Energia Aurrezteko Oinarrizko Dokumentua (DB-HE) proiektuaren muinarekin bat dator, hurrengo helburua duelarik: “eraikinen erabilera beharrezkoa den energia arrazionala erabiltzea lortzea, kontsumo iraunkorra murriztea eta kontsumo horren zati bat energia berriztagarrietatik datorrela bermatzea. Zure proiektua, eraikuntza, erabilera eta mantentze lanak” .

Dokumentu hau sei ataletan banatzen da, horietako lehenengoa, HE 0 atala, energia kontsumoa murriztea eta energia kontsumoak kalkulatzeko gakoak ematen ditu.



1 HE atalak, eskari energetikoaren murrizketa, eraikinaren eskari energetikoaren kalkulua egiteko gakoak ematen ditu. Bere eranskinean, eremu klimatikoaren taulak sartzen dira. Bertan egiaztatzen da zein eremutan dagoen eraikinaren ikerketa objektua. Eremu horiei dagozkien datuak Ministerioak argitaratutako .MET fitxategietan lortzen dira.

Oinarrizko dokumentua HE 2 atalean, instalazio termikoen errendimenduan, eraikinaren instalazio termikoen erregulazioa (RITE) bir zuzentzen da. Dokumentu hau eraikuntza berrien eraikinetako instalazio termikoei aplikatzen zaie. Instalazio termikoak diseinatu eta kalkulatu, exekutatu, mantendu eta erabili behar dira, ingurumenaren kalitate termikoa lortzeko, barruko airearen kalitatea eta dohaineko kalitatea lortzeko. 'erabiltzaileak eraikitzeko onargarria den ur bero sanitarioan ».

HE 4 atalak, argiztapen instalazioen eraginkortasun energetikoan, argiztapenentarako eta energia-eraginkortasunaren kalkulu-metodoentarako gehienezko potentzia-mahaiak eskaintzen ditu.

HE 4 atalak ur bero sanitarioaren eguzki ekarpen minimoa ezartzen du eraikin berrietan. Ekarpene hori partzialki edo guztiz ordezkatu daiteke beste energia berriztagarrien instalazio alternatibo batengatik, hala nola, energia geotermikoa. Ordezkapene hori ezartzen duen baldintza da sistema alternatiboa eta bere instalazio osagarriak direla karbono dioxidoaren ekoizpena eta iturri ez berriztagarrietatik energia primarioaren kontsumoa. edo eguzki-instalazio termikoarekin lortutakoa baino txikiagoa.

Azkenean, HE 5 atalean, energia fotovoltaikoaren gutxieneko ekarpenean elektrikoa, teknologia horren instalatu behar diren gutxieneko balioak ezarriko dira. Aurreko atalean bezala, teknologia hori beste edozein teknologia berriztagarriaren ordezkari gisa daiteke.

Azaldutakoaren arabera, dokumentua energia aurrezteko gida bat da, proiektuan gomendio moduan hartuko direnak bezeroaren irizpideak jarraituz.





### 1.1.6.2. Meatze legedia

Geotermiaren aldetik aztertu behar da ea baldintza bereziak aplikatu behar diren legearen aldetik. Horretarako uztailak 21-eko 22/1973-ko Meatze legera (2010-ean gaurkotua) jo behar da.

Era honetan, lurreko baliabide guztiak bezala, baliabide geotermikoen erabilera Mineralen Legean araututa dago, kontuan hartu beharrekoa. Bertan, gordailu geologikoen eta baliabideen sailkapena lau atalen arabera ezarri da. Gaur egungo azterketa A atalean sailkatzen da, zeren eta biltzen baita

“Balio ekonomiko baxua eta merkatu geografikoki mugatua, baita horiek ere horren erabilera bakarra tamaina eta forma egokien zatiak lortzea da azpiegituren obrak, eraikuntza eta bestelako erabilerak zuzenean erabiltzeko, hasierako, hausturak eta kalibratzekoak baino eragiketa gehiago behar ez dituztelako”.

Bestalde, A ataleko baliabideen ustiaketa ez du ustiapen baimena lortu behar, meatze-teknikak erabiltzeko beharrik ez badago. Horregatik, lurrean sunda geotermikoak sartzeko zulaketa egiten denean, beharrezkoa da baimen hori prozesatzea. Gainera, meatze-segurtasunaren ikuspegitik proiektu bat aurkeztu behar da. Proiektuaren kasuan azpi ordezten den konpainiak aurkeztuko duena.

Baita ere aipatu behar da proiektuan ura ez dela zuzenki ustiatzen. Plazaratutako moduan badaude instalazio geotermikoak zeinetan lurpeko ura zuzenean erabiltzen den energia lortzeko. Era honetan, B baliabidea ustiatuko litzateke meatze legearen arabera. Proiektua ura ez duenez zuzenean erabiltzen, azpimarratu behar da ez dela honen inguruan baimenik behar.



### 1.1.6.3. IDAE

IDAE-k eraikineko instalazio termikoen energia-eraginkortasuna areagotzeko, sektoreko diseinatzaileei, instalatzaileei, mantentzaileei, ikuskatzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako gidaliburu teknikoak diseinatu ditu. RITE-ren Aholku Batzordea, bilera 2007ko abenduaren 17an, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Energia Idazkaritza Nagusiaren proposamena onartu zen, 1 eta 7 bitarteko tekniken barnean, RITEren Memoria Onartuen Erregistro Orokorrean, artikulua araberan 44, 5. atala, RITE 6 eta 7. artikuluetan ezarritako ondorioetarako.

Proiektuaren gauzaketarako aholku moduan zenbait gida-liburu erabili dira. Gida hauetan hainbat aplikazio daukate, hona hemen zeinek erabili diren:

- Zirkuitu itxiko sistema geotermikoen diseinurako gida teknikoa: Izenak ezaten duen moduan helburua sistema geotermiko bat era zuzenean diseinatzea du helburu. Temperatura gradienteen azalpena erabilgarria egiten du.
- Geotermia gida teknikoa: Geotermiari buruzko datu orokorrak plazaratzen ditu.
- Proiektuaren kanpo baldintzen gida teknikoa: Proiektuaren kanpoaldeko baldintza klimatikoen ezaugarriak biltzen ditu, zehaztuz zein  $T_{kanpo}$  hartu daitekeen.

### 1.1.6.4. Diru laguntzak

Proiektuaren kasuan eta baldintzak diren medio diru laguntzen ikerketa egin da EVE erakundearen kostuen murrizketa bat bilatuz.

EVE-a Eusko Jaurlaritzak eratu zuen Energiaren Euskal Erakundea (EEE) 1982. urtean, eta geroztik energia-politikaren oinarriak finkatzen ditu. Oinarri horiek, garaian garaiko egoerara egokituta, energia-eraginkortasuna, Euskal autonomi erkidegoko energia-iturrien ugaritzea eta energia berriztagarrien sustapena dira.

Geroztik, Eusko Jaurlaritzak ezarritako politiken bidetik, hainbat proposamen eta neurri garatzen dituen euskal energia agentzia da.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Baita ere EVE-ak energia berriztagarriak sustatzeko, diru laguntzen baldintzak argitaltzen dute urtero. 2018-ko diru laguntzen argitalpena 83zb. Maiatzak 2ko Euskal Autonomi Erkidegoko Buletin Ofizialean argitaltzen dira.

Ale honetan, 2018 urterako, etxetiar sektorerako diru laguntzak zeharo murriztu dira, aldiz, pasaden urteko diru-laguntzekin alderatuta sektore industrialdekoak mantendu egin dira. Jardunaldi honetan, proiektuari begira, eguzki solar termikoari soilik dagokio diru laguntza ondoren ikusten den moduan:

Dokumentuan, 5. atalean deritzon moduan, “Atal honetan aipatutako jardueren diru laguntzen zenbatekoak ezin izango du gaintitu kostu lagungarriaren % 30” aplikagarria dena; “Eguzki-erradiazioaren xurgatzenetik abiatuta, fluidoren bat berotzeko eguzki-energia sistemak. Horretarako, eguzki-kolektoreak erabiliko dira eta hauen galera-koefiziente globala  $9 \text{ W}/(\text{m}^2 \text{ } 0 \text{ } ^\circ\text{C})$  baino txikiagoa izango da aplikazio termikoetan erabiltzeko”

Beraz energia solar termikoari BEZ-barik, %30-ko diru laguntza jasoko du.



## 1.1.7. Bibliografía

- (1) ¿Qué es la biomasa? .
- (2) Biomasa. ; 2011.
- (3) European Health Interview Survey (EHIS wave 3) — Methodological manual. Available at: <http://ec.europa.eu/eurostat/web/products-manuals-and-guidelines/-/KS-02-18-240?inheritRedirect=true>. Accessed Jul 24, 2018.
- (4) Shedding light on energy on the EU. Available at: <http://ec.europa.eu/eurostat/cache/infographs/energy/index.html>. Accessed Jul 24, 2018.
- (5) Thermic – Solar Thermal Systems.
- (6) NIBE - Ground source heat pumps, Air/water heat pump, Exhaust air heat pumps. Available at: <https://www.nibe.es/>. Accessed Jul 24, 2018.
- (7) Rivas PP. Funcionamiento Geotermia. La Energía Renovable del Suelo. 2016 -11-14T09:47:00+00:00.
- (8) Material. Material 1975.
- (9) Bases Terciario 2018 Cas BOPV.
- (10) Bases Industria 2018 Cas BOPV.
- (11) España. Ley de prevención de riesgos laborales. Spain; 2004.
- (12) Nearly zero-energy buildings - Energy - European Commission. Available at: </energy/en/topics/energy-efficiency/buildings/nearly-zero-energy-buildings>. Accessed Jul 24, 2018.
- (13) Factsheet.
- (14) © Peter Aaron / OTTO. The global Passive House network for energy efficiency in construction iPHA works to promote the Passive House Standard and foster a greater public understanding of its significance. comfortable affordable sustainable.
- (15) IGME :: Portal de Aguas Minerales y Termales. Available at: <http://aguasmineralesytermales.igme.es/inicio.aspx>. Accessed Jul 24, 2018.
- (16) Ley 2, de 21 de julio, de Minas. LEGISLACIÓN CONSOLIDADA.
- (17) Am 1m2, MacMillan a. Calentamiento global 101. Available at: <https://www.nrdc.org/es/stories/calentamiento-global-101>. Accessed Jul 24, 2018.
- (18) Global Warming. Available at: <https://www.ucsusa.org/global-warming>. Accessed Jul 24, 2018.
- (19) Climate Change: Vital Signs of the Planet. Available at: <https://climate.nasa.gov/>. Accessed Jul 24, 2018.
- (20) 14. Informazioni marcatura / Marking information / Informations certification / Prüfungsinformation / Información de marcado.



- (21) r01e00000fe4e66771ba470b8e35584d9d7da8391 r. Servicio de Descarga FTP. Available at: [http://www.geo.euskadi.eus/s69-geoser/es/contenidos/informacion/servicio\\_ftp/es\\_80/servicio\\_ftp.html](http://www.geo.euskadi.eus/s69-geoser/es/contenidos/informacion/servicio_ftp/es_80/servicio_ftp.html). Accessed Jul 24, 2018.
- (22) Documento Básico HS Salubridad. ; 1998.
- (23) Documento Básico SE Seguridad estructural. ; 1998.
- (24) Ahorro de energía. Documento Básico HE.
- (25) 38 IV.
- (26) ¿Qué es el cambio climático y cómo nos afecta? Available at: <https://www.mapama.gob.es/es/cambio-climatico/temas/que-es-el-cambio-climatico-y-como-nos-afecta/>. Accessed Jul 24, 2018.
- (27) Our World in Data. Available at: <https://ourworldindata.org>. Accessed Jul 24, 2018.
- (28) r01e0000000ff26d46212a470b8ae993756a24b76 r. Euskalmet - Euskal Meteorologia Agentzia. Available at: [www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net). Accessed Jul 24, 2018.
- (29) Meteorología AEd. Agencia Estatal de Meteorología - AEMET. Gobierno de España. Available at: <http://www.aemet.es/es/portada>. Accessed Jul 24, 2018.
- (30) Instalaciones de geotermia.
- (31) Geotermia. ; 2007.
- (32) Hum. relativa. UBICACIÓN: ENTORNO CIUDAD Nº DE OBSERVACIONES Y PERIODO.
- (33) A. G GAMA DOMÉSTICA. CONFIGURACIONES classic y elite.
- (34) Sonda RAUGEO PE-RC 32 x 2, 9 DUO - 4 tubos Medida pie de sonda D=96mm. Sonda RAUGEO PE-RC DUO - 4 tubos.
- (35) GrupoEdiser - Baños, Cobiertas, Impermeabilización y otros materiales de construcción. Available at: <http://www.grupoediser.es/>. Accessed Jul 21, 2018.
- (36) Precios de los Biocombustibles Sólidos 4T-2016. 2017 -01-18T09:55:17+00:00.
- (37) Preguntas frecuentes sobre pellet.
- (38) Rendimiento de captadores solares térmicos. Available at: [https://suelosolar.com/guiasolares/acs/rendimiento\\_colectores.asp](https://suelosolar.com/guiasolares/acs/rendimiento_colectores.asp). Accessed Jul 20, 2018.
- (39) INSPIRAIR.
- (40) Temperatura suministro de agua en ciudades España. Available at: <http://www.suelosolar.com/guiasolares/acs/temph2oes.asp>. Accessed Jul 19, 2018.
- (41) TEMA 2. CARACTERIZACION DEL TERRENO (1).
- (42) Dipl. Phys. Manfred Reuß, Dr. Burkhard Sanner. DESIGN OF CLOSED LOOP HEAT EXCHANGERS.
- (43) Trabajo Fin de Master. Titulacion: Master Universitario en Ingeniera de Minas.

## 1.2. Azalpen memoria

### 1.2.1. Kalkuluak

Kalkuluak hasi baino lehen parametroak ezarri behar dira, bai egingo den etxebizitzaren karakterizazioa, bai ondoren erabiliko diren formulen azalpena eta kalkulu koefizienteak. Beraz, lehenengo etxearen karakterizazioa egingo da, egoera klimatikoa eta erabiliko diren formula matematikoak eskaera termikoa eta ondorengo dimentsionamendua egiteko balio dutenak.

#### 1.2.1.1. Etxebizitzaren Karakterizazioa

Olabe baserria Bedarona auzoan kokatua dagoen baserria da. Baserriak 400 urte ditu eta momentu honetan berriztatze prozesuan daude. Beraz berriztatze prozesua profitatuz baserria moldatuko da 21° mendera. Jada baserriaren teilatua jarri berri da.

Baserriak landan betetzen duen azalera 364m<sup>2</sup> dira. Ondoren erakusten den moduan.



47. Irudia Olabe baserriaren azalera.



Sistemak era egokian aplikatzeko ulertu beharra dago Olabeko proiektua zein den. *Olabe Project*, baserria moldatzea du helburu bertan ainbat ekintza sozialak egiteko. Gaur egungo bizimodu estresatuetik alde egiteko baserria moldatu nahi dute baserriko erroetara bueltatzeko ainbat tailer eta mintegi eskainiz. Baita ere surf kanpamentuak eskainiko dira. Modu honetan baserria bi eskualdetan banatuko da:

1. Etxebizitza: Bertan urte osoan familia biziko da eta baliteke ainbat senide etortzea urtean zehar, beraz parametro hau kontuan hartu behar da.
2. *Olabe Project*: Parte honetan jendaurreko hitzaldiak eta kanpamentuetako logelak egongo dira, beraz ekintza ekonomikoa gauzatuko dira. Lehen ukiulu izandako gunea hartzen du. Parte honi dagokion legedia desberdina izango da.



48. Irudia Etxebizitzaren banaketa..

Argi ikusten den moduan bi erabilera edukiko dute baserriaren alderdiak. Ortaz, baserriak arautegi desberdina jarraituko ditu egingo den erabilpenaren arabera.

Gertatzen da *Olabe Project* epe luzerako proiektua dela eta momentu honetan, segidan ez da gauzatuko. Ideia da Olabe Project pixkanaka-pixkanaka gauzatzea eginda egon arte. Beraz ezan daiteke bi proiektu daudela alderdien arabera eta denboran banandurik. Egoera



dela eta, berriztatze prozesua aprobetxatuz Etxebizitzaren proiektua garatuko da etorkizuneko egoera kontuan hartuta, baina *Olabe Project*-ren proiektua ez da proposatuko.

Oso inportatea kalkuloak egin haurretik lortutako datuak estimazioak izango dira, tabikeria bota egingo delako barrutik eta ez delako egoera berria horaindik zehaztu, bakkarik zenbat gela edukiko dituen aldiz, bai.

#### 1.2.1.1.1. Garapena

Proiektua helburu moduan du etxebizitzako bero ekarpenak jaistea baserriaren itxitura termikoa hobetuz eta bero beharrak asetzen duten makinak zehaztea, ahaztu barik baserriaren 2. alderdia etorkizun batean erabiliko dela. Era honetan 2. Alderdiko bero galerak kontuan hartuko dira baita, baina proiektua planteatuko da, nolabait, etorkizunean 2. Alderdia era independentean jokatu dezan, etxearen kontsumoa afektatua izan ez dadin. Laburtzeko, etxe osoaren eskari termikoa hobetuko da eta hornituko da kontuan hartuta etorkizunean 2. Alderdia bezte helbururako erabiliko dela.

#### 1.2.1.1.2. Itxituraren karakterizazioa.

Baserriaren parametro fisikoak zein diren zehaztuko dira, hondoren kalkuluetan eta deskribapenean era egokian eta zehaztean plazaratuak izateko. Modu honetan itxituran dauden azalerak eta isolamendua karakterizatuko dira. Hauekin kalkuluen 1.2.1.4 Atalean itxituraren eskaria kalkulatu da.






### 1.2.1.1.2.1. Azalerak

Lauki zuzen baten era duen etxebizitza izanda 6 alde izango ditu. Hauen artean naiz eta batzuek paraleloak izan (Ipar-Hego, Ekialde-Mendebalde) ez dute azalera berdina betetzen irregularrak direlako.

Iparaldeko geruza




49. Irudia Iparraldeko altxaera.

7. Taula Iparraldeko azalerak.

|                                    | <i>Azalera Guztia</i> | <i>Leihoen Azalera librea</i> | <i>Ateen Azalera</i> | <i>Azalera Lurperatua</i> | <i>Azalera Librea</i> |
|------------------------------------|-----------------------|-------------------------------|----------------------|---------------------------|-----------------------|
| <i>Ipar Geruza (m<sup>2</sup>)</i> | 79,463                | 0,566                         | 0                    | 34,52                     | 44,377                |

Ekialdeko geruza




EKIALDEKO ALTXAERA

50. Irudia Ekialdeko altxaera.

8. Taula Ekialdeko azalera

|                                       | <i>Azalera Guztia</i> | <i>Leihoen Azalera librea</i> | <i>Ateen Azalera</i> | <i>Azalera Lurperatua</i> | <i>Azalera Librea</i> | <i>Solairua airearekin kontaktuan</i> |
|---------------------------------------|-----------------------|-------------------------------|----------------------|---------------------------|-----------------------|---------------------------------------|
| <b>Ekialde Geruza (m<sup>2</sup>)</b> | 134,815               | 3,232                         | 3,67                 | 0,9                       | 127,013               | 31,6                                  |

Hegoaldeko geruza



HEGOALDEKO ALTXAERA

51. Irudia Hegoaldeko altxaera



9. Taula Hegoaldeko azalera

|  | <i>Azalera Guztia</i> | <i>Leihoen Azalera librea</i> | <i>Ateen Azalera</i> | <i>Azalera Lurperatua</i> | <i>Azalera Librea</i> |
|--|-----------------------|-------------------------------|----------------------|---------------------------|-----------------------|
| <b>Hegoalde Geruza (m<sup>2</sup>)</b> | 81,62                 | 3,563                         | 2,1                  | 0                         | 75,957                |

Mendebaldeko geruza




52. Irudia Mendebaldeko altxaera.

10. Taula Mendebaldeko azalera.

|  | <i>Azalera Guztia</i> | <i>Leihoen Azalera librea</i> | <i>Ateen Azalera</i> | <i>Azalera Lurperatua</i> | <i>Azalera Librea</i> |
|--|-----------------------|-------------------------------|----------------------|---------------------------|-----------------------|
| <b>Mendebalde Geruza (m<sup>2</sup>)</b> | 95,6                  | 1,486                         | 4,3                  | 9,6                       | 80,214                |

Teilatua

Maiatzean berritu egin da eta azalera totala 437m<sup>2</sup> dira.



53. Irudia Teilatua.

### Solairua

Bi alderdi bereiztuko dira, bat zoruarekin kontaktuan dagoena eta bestea etxebizitzak duen azalera.

- Zoruarekin kontaktuak: 290.45m<sup>2</sup>
- Etxebizitzaren azalera: **440m<sup>2</sup>**. Etxearen lehenengo alderdia hartzen du guztiz eta 2º alderdian bakarrik lehenengo solairuan. 2º alderdiko 2º solairua ez dago eraikita baina etorkizun batean eraikiko nahi da, beraz gaur egun eginda dagoenaren arabera dimentsionatuko da.

### Totalak

11. Taula Azalera totalak.

|   | <i>Solairua<br/>airearekin<br/>kontaktuan</i> | <i>Leihoen<br/>Azalera<br/>librea</i> | <i>Ateen<br/>Azalera</i> | <i>Azalera<br/>Lurperatua</i> | <i>Azalera<br/>Librea</i> | <i>Solairua</i> | <i>Teilatua</i> | <i>Etxebizitza</i> |
|---|---|---------------------------------------|--------------------------|-------------------------------|---------------------------|-----------------|-----------------|--------------------|
| <b><i>Guztira<br/>(m<sup>2</sup>)</i></b> | <b>31,6</b>                                   | <b>8,847</b>                          | <b>10,07</b>             | <b>45,02</b>                  | <b>327,561</b>            | <b>290,45</b>   | <b>437</b>      | <b>440</b>         |



#### 1.2.1.1.2.2. Bolumena

Baserriaren bolumena **2294,75 m<sup>3</sup>** dira. Antzeman daiteke azalerak eta bolumena alderatuz oso handia dela.

#### 1.2.1.1.3. Termika

Baserria eraikitzeke erabilitako materialak, orain dela 400 urte erabili zirenak dira; ez oso eraginkorrak. Metodo sinpleak erabili ziren eta materialak ere, propietate termikoak jakiteko ondoren baserriko atal desberdinen transmitantzia termikoak ikusiko dira.

Transmitantzia termikoaren (U) parametroak zenbat bero jariatzen da azalera eta denbora unitateko neurtzen du.

##### 1.2.1.1.3.1. Itxitura termikoa

Baserria hare- harriarekin eraikita dago eraikita, kanpoko hormak era estrukturalen lan egiten dutenak bataz besteko potentzia 0.6m-koa daukate. Baina hormak lodiak izan arren ez da isolapen handia lortzen. Bereizirik itxituren, harrerako teilatua etxebizitzako 2º pisuko solairua dena, airean dago bero transferentziak handituz.


Baserriaren itxitura eratzen duten beste elementuak leihoak eta ateak dira. Elementu hauek zaharkitua dauden materialak erabiltzen dute, baita markoekin duten tolerantziak oso eskasak dira eta lasaiera dute infiltrazioak ahalbidetuz. Leihoen kasuan, kristal bakarrekoak dira egurrezko markoarekin. Ateen kasuan, egurrez eginda daude.

Lurrarekin kontaktuan

Baserriaren solairua zoruarekin kontaktu zuzenean dago. Eraikitakoaren arabera, kareharri legarrez osatutako 0.3m-ko ohea gauzatzen da eta horren gainean 0.13m-ko mortero geruza dago. Honekin solairu zurruna eratzen da.



Baserria kokatuta dagoen lekuaren orografiaren ondorioz, itxitura bertikala lurperatuta gelditzen da puntu batzuetan, iparraldeko geruzan gehien bat. Honek eragiten du bero galera handiago bat eroapena dela eta.



54. Irudia Ezkerrean solairua, erdian kanpoko hare harri horma eta ezkerrean horma bertikala lurrarekin kontaktuan.

## Teilatua

Teilatua maitzean berritu egin da lehendik zeuden infiltrazioak hobeagotuz, jada itxituraren estankotasuna hobetu da. Arkitektoak eginiko proiektuan karakterizatzen da elementu hau XXI. Mendera moldatu dena.

Transmitantzia termikoen baloreak.

Baserriak osatzen duten elementuen transmitantziak kalkulatu dira lodierak kontuan hartuta, geroago kalkuluetan aplikatzeko.



12. Taula Materialen transmitantzia termikoa.

|                                       | <b><i>Tranmitantzia<br/>Termikoa U (W/m<sup>2</sup>•C)</i></b> |
|---------------------------------------|--|
| <i>Ixitura librea</i>                 | 2,702  |
| <i>Leihoak</i>                        | 4,475  |
| <i>Ateak</i>                          | 2,290  |
| <i>Solairua airearekin kontaktuan</i> | 5,450  |
| <i>Teilatua</i>                       | 0,269  |
| <i>Solairua</i>                       | 2,222  |
| <i>Ixitura lurperatua</i>             | 3,030  |



## 1.2.1.2. Klima

Proiektua kokatzen den lekuko klimak zehazten ditu etxebizitza kanpoan dauden parametroak; zein diren tenperatura maximo-minimoak, prezipitazio tasak, zenbat eguzki egiten duen, etab...

Ea isurialde atlantikoko aldean dago kokatua. Klima mesotermikoa du; temperaturei dagokienez, azpimarratu beharra dago nahiko moderatuak direla. Hau batez ere neguan ikus daiteke. Udak oso beroak ez diren arren, itsasertzean erregistratu ohi dira Euskal Herriko urteko batez besteko tenperaturarik altuenak, batzuetan bero zakarreko egunak eman daitezkelarik 40°C-tara iritsiz.

Prezipitazio aldetik nahiko euritsua da, urteko batez besteko prezipitazioa 1.2000 mm eta 2.000 mm artekoa delarik. Hau guztiagatik hezetasun altuko gunek bat dela ondorioztatu daiteke.

### 1.2.1.2.1. Tenperatura

Temperaturak zehaztuko du zein den berotze edo hozte eskaria. Honen arabera hausnartuko da ea hozketa sistema ipintzea merezi duen.


Beraz, tenperatura Ea udalerriko klimaren arabera, nahiko leunak dira barrualdeko lurraldeekin konparatuta. Hala ere latitude handian dago kokatua herria, beraz, espero da tenperaturak baxuak izatea naiz eta, barrualdeko tenperaturen bezain bortitzak izan ez.

Aemet eta Euskalmet daukaten estazio datuekin tenperaturen mapa egin da, honela era bisual batean ikus dadin zer nolako tenperaturak dauden






### Tenperatura Maximoak Euskadi



55. Irudia Tenperatura maximoak.

### Tenperatura Minimoak Euskadi



56. Irudia Tenperatura minimoak.




13. Taula 2015-eko Tenperatura medioak hilabeteko.

| <b>Tenperatura (°C)</b> | <b>Urtaroak</b>  |
|-------------------------|------------------|
| <i>8.8</i>              | <i>Urtarrila</i> |
| <i>7.3</i>              | <i>Otsaila</i>   |
| <i>10.4</i>             | <i>Martxoa</i>   |
| <i>15.1</i>             | <i>Apirila</i>   |
| <i>16.3</i>             | <i>Maiatza</i>   |
| <i>19.4</i>             | <i>Ekaina</i>    |
| <i>21.7</i>             | <i>Uztaila</i>   |
| <i>21.6</i>             | <i>Abuztua</i>   |
| <i>17.6</i>             | <i>Iraila</i>    |
| <i>16.5</i>             | <i>Urria</i>     |
| <i>14.0</i>             | <i>Azaroa</i>    |
| <i>13.9</i>             | <i>Abendua</i>   |

Ikusten den moduan eta salbuespen barik Ea-ko udalerrian tenperaturak leunagoak dira baina hala eta guztiz neguan baxuak jarraitzen dira izaten. Tenperatura baxuenak 5°C-koak izan daitezke eta altuenak 26°C ingurukoak, baina gerta daiteke momentu puntaletan eta baldintza konkretuen menpe tenperatura hauek aldatzea, adibidez, 2016-an 40°C erregistratu izan ziren uztailean.

#### 1.2.1.2.2. Prezipitazioak

Era laburrean ikusiko dira, zeren eta ez dute proiektuan eragin zuzenik. Kontuan hartuko dira akuiferoen piezometria kontrolatzeko eta ziur egoteko ea agortzen ez diren. Hiru autonomi erkidegoen prezipitazio datuak ikusiko dira ondoren:



57. Irudia Prezipitazioak hiru autonomi erkidegoetan.

Ikusten den moduan Bilbo hirian (Bizkaia) lortu diren datuak erakusten dute nola nahiko esea dela, lehen aipatu den moduan eta klima mesotermikoari dagokionez. Beraz, ez da egongo problemarik akuiferoentzako. Geroago\* bueltatuko da era laburrean akuiferoen arriskueta.

### 1.2.1.2.3. Eguzki egunak

Inplementa nahi diren energia iturri batzuentzako parametro garrantzitsua da. Hala ere ez da atal honetan landuko, baizik eta eguzki teknologiak justifikatzerakoan. Aipatzekoa da, naiz eta eguzki egun gutxi egon estuko hegoaldearekin konparatuta, ez dakarrela eragozpen handirik.



### 1.2.1.3. Karga termikoen definizioa

Karga termikoak etxebizitza barruko airearen temperatura eta hezetasuna moldatzen duten fenomenoak dira. Mota desberdinak desberdin daitezke euren bereizgarri eta jatorriaren arabera. Hauexek kontuan hartzen dira etxe baten klimatizazioa gauzatzekoan.

#### 1.2.1.3.1. Transmisio kargak

Transmisio kargak etxebizitzaren barrualdea eta kanpoaldea bereizten duten elementu konstruktiboetan eroapenaren bidez gertatzen diren kargak dira, hauek hematen dira itxituretan, estalkietan, leihoetan eta lurzoruekin kontaktuan dauden elementuetan eta hondorengo formularekin kalkulatu da:

$$Q_{trans} = U \cdot A \cdot \Delta T$$

Non:

- $Q_{trans}$ : Igorpen bidezko karga termikoa [W].
- $U$ : Itxiduraren transmitantzia termikoa [W/(m<sup>2</sup>)·°C]. Parametroaren kalkulua kode teknikoaren energia kontsumoko dokumentua tipifikatuta dator ondorengo izanik adierazpena;

$$U = \frac{1}{R_{si} + R_1 + R_n \dots + R_{se}}$$

$R$ , erresistentzia termikoa (m<sup>2</sup>·K·W<sup>-1</sup>) izanda.  $R_{si}$  eta  $R_{se}$  balioak kode teknikoan aurkitzen dira, kanpoko eta barruko baldintzen erresistentzia termikoak direnak.

- $A$ : Itxiduraren azalera [m<sup>2</sup>].
- $\Delta T$ : Itxituretan barrualdeko eta kanpoaldeko jauzi termikoa (  $T_{out} - T_{in}$  ) [°C].

1027/2007 errege dekretuaren arabera RITE (eraikuntzetako instalazio termikoen araudia) arautzen du. Dokumentu honetan temperatura jauzirako zein balore eduki behar den barrualdeko temperaturarako ( $T_{in}$ ) zehazten da. Balore hauen limiteak ondorengo taulan zehazten dira:



14. Taula Barrualdeko diseinu baldintzak.

| Urtaroa | Temperatura eraginkorra [°C] | Hezetasun erlatiboa<br>% |
|---------|------------------------------|--------------------------|
| Uda     | 23...25                      | 45...60                  |
| Negua   | 21...23                      | 40...50                  |

Naiz eta temperatura hauek zehazten diren, araudia ahalbidetzen duen jauzi txikiena ahalbidetzen duen temperatura erabiliko da, modu honetan, neguko  $T_{in}$  21°C izango dira.

Etxebizitzaren kanpoko temperatura ( $T_{out}$ ) industria ministerioaren baldintza klimatikoaren gida teknikoaren arabera definitzen da. Dokumentu hau IDAE-k argitaltzen du, Sondikako Aireportuan dagoen estazio klimatikoaz baliatzen da temperaturen mediak egiteko, ondorengo taulan ikusten den moduan berokuntza baldintzetarako:

15. Taula Berokuntza proiektu baldintzak IDAE

| TSMIN<br>(°C) | TS_99,6 °C | TS_99 °C | OMDC<br>(°C) | HUMcoin (%) | OMA (°C) |
|---------------|------------|----------|--------------|-------------|----------|
| -6,0          | -0,2       | 1,2      | 10,7         | 89          | 31,4     |

$T_{out}$  1,2 °C hartuko da TS\_99 zehazten duena. Honen arabera, urtean zehar temperatura %99-ean 1,2 °C-tik gora mantentzen da.

Beraz temperatura saltoa 1.2 °C-tik 21 °C-ra izango da, 19,8 °C-koa ain zuzen ere.

### 1.2.1.3.2. Aireztapen Kargak



Etxeak behar duen aireztapen minimoa makinaren bidez zehazten da DB-HS 3 dokumentuan agertzen den baldintzekin. Dokumentuak etxebizitzako egongelen arabera aireztapena zehazten du:

16. Taula Emari minimoa konstanteak aireztapenerako

| Etxebizitza mota   | Emari minimoa (l/s) |                   |                         |                 |                |
|--------------------|---------------------|-------------------|-------------------------|-----------------|----------------|
|                    | Gela sikuak         |                   |                         | Gela hezeak     |                |
|                    | Logela nagusia      | Gainerako logelak | Egongelak eta jantokiak | Guztira minimoa | Minimoa gelako |
| 3 gela edo gehiago | 8                   | 4                 | 10                      | 33              | 8              |

Ikusten den moduan 2 logela nagusi, 5 gainerako logela, 2 gela heze, 2 egongela nagusi izango ditu, beraz, guztira, **72 l/s**-ko izango dira

Oso inportatea kalkuloak egin haurretik lortutako datuak estimazioak izango dira, tabikeria bota egingo delako barrutik eta ez delako egoera berria horaindik zehaztu, bakarrik zenbat gela edukiko dituen aldiz, bai.

Aireztapenaren bidezko kargak formula honekin kalkulatu dira:

$$Q_{airez} = m \cdot c_{p,aire} \cdot \rho_{aire} \cdot \Delta T$$

Non:

- $Q_{airez}$ : Aireztapen karga [kJ/h].
- $c_{p,aire}$ : Airearen bero espezifiko, (1,012 kJ/(kg °K)).
- $\rho_{aire}$ : Airearen dentsitatea (1,2 kg/m<sup>3</sup>).
- $m$ : Aire emari bolumetrikoa [l/s].
- $\Delta T$ : Itxiduraren barrualdeko eta kanpoaldeko jauzi termikoa (  $T_{out} - T_{in}$  ) [°C].



### 1.2.1.3.3. Infiltrazio Kargak

Etxebizitzaren itxitura zeharkatzen duen aireari infiltrazio moduan ezagutzen zaio, hauek itxituraren elkargunetan, leihoen eta ateen markoetan gertatzen dira gehien bat.

Infiltrazioengatik gertatuko kargak honela kalkulatzen dira:

$$Q_{infil} = n \cdot c_{p,aire} \cdot \rho_{aire} \cdot v \cdot \Delta T$$

Non:

- $Q_{infil}$ : Infiltrazio karga [KJ/h].
- $c_{p,aire}$ : Airearen bero espezifikoa, (1,012 kJ/(kg °K)).
- $\rho_{aire}$ : Airearen dentsitatea (1,2 kg/m<sup>3</sup>).
- $v$ : Sartutako aire bolumena berrikuntza batean [m<sup>3</sup>/berri].
- $n$ : Orduko gertatutako berrikuntza [berri/h].
- $\Delta T$ : Itxiduraren barrualdeko eta kanpoaldeko jauzi termikoa (  $T_{out} - T_{in}$  ) [°C].

$n$  koefizientea normalean etxebizitzaren bolumen totalaren %5 izaten da normalean, baina kasu honetan baserriaren antzintasuna dela medio koefiziente handiagoa hausnartuko da: **0,24 berri/h**

### 1.2.1.3.4. Berreskurapen Kargak

Hondar beroaz baliatzen diren ekipoa trukatzaille termikoen bidez, etxebizitzaren aireztapen eskari termikoa jaisten dute. Bero berreskurapen kargak ondorengo formularekin kalkulatzen da:

$$Q_{ber} = \eta_{ber} \cdot c_{p,aire} \cdot \rho_{aire} \cdot v \cdot \Delta T$$

Non:

- $Q_{ber}$ : Bero berrikuntzaren karga [KJ/h].
- $\eta_{ber}$ : Makinaren bero berreskurapenaren efizientzia [%].
- $c_{p,aire}$ : Airearen bero espezifikoa, (1,012 kJ/(kg °K)).
- $\rho_{aire}$ : Airearen dentsitatea (1,2 kg/m<sup>3</sup>).
- $v$ : Sartutako aire bolumena berrikuntza batean [m<sup>3</sup>/berri].



- $\Delta T$ : Itxituraren barrualdeko eta kanpoaldeko jauzi termikoa ( $T_{out} - T_{in}$ ) [°C].

### 1.2.1.3.5. UBS Kargak

Etxebizitza zehar UBS (ur bero sanitarioa) kontsumo bat dago, ur hau gizakien kontsumorako berotua izan dena da. Kontsumo hau energia jakin bat behar du eta karga termikoa dakartza eraikinerako. Karga hori ondorengo formularekin kalkulatzen da:

$$Q_{ACS} = c_{p\ ura} \cdot \rho_{ura} \cdot v \cdot \frac{1}{t_{bero}} \Delta T$$

Non:

- $Q_{ACS}$ : Bero berrikuntzaren karga [KJ/h].
- $c_{p\ ura}$ : Uraren bero espezifikoa, (4,175 kJ/(kg °K)).
- $\rho_{ura}$ : Uraren dentsitatea (1000 kg/m<sup>3</sup>).
- $v$ : Ur bero sanitarioaren bolumena [m<sup>3</sup>].
- $t_{bero}$ : Ur bero sanitarioa berotzeko denbora [h].
- $\Delta T$ : Jauzi termikoa ( $T_{net} - T_{in}$ ) [°C].

Jauzi termikoa  $T_{net} - T_{in}$  kalkulatzen da,  $T_{net}$  sare orokorraren batez-besteko temperatura izanda Bilborako kasurako. Temperatura hauek RITE dokumentuan agertzen da ur bero sanitarioaren gida termikoan, hauen baloreak ondorengo taulan agertzen dira:

17. Taula Sareko uraren bataz-besteko temperaturak hileko, RITE-ren arabera.

|                  |              |
|------------------|--------------|
| <b>Urtarrila</b> | <b>9 °C</b>  |
| <b>Otsaila</b>   | <b>10 °C</b> |
| <b>Martxoa</b>   | <b>10 °C</b> |
| <b>Apirila</b>   | <b>11 °C</b> |





|                |       |
|----------------|-------|
| <b>Maiatza</b> | 13 °C |
| <b>Ekaina</b>  | 15 °C |
| <b>Uztaila</b> | 17 °C |
| <b>Abuztua</b> | 17 °C |
| <b>Iraila</b>  | 16 °C |
| <b>Urria</b>   | 14 °C |
| <b>Azaroa</b>  | 11 °C |
| <b>Abendua</b> | 10 °C |

Kasurik txarreanean ipintzeko  $T_{net}$  **9 °C** hartuko da, Urtarrileko tenperatura baxuena dena.

$T_{in}$  -ren tenperatura araututa dago 865/2003 Errege Dekretuaren arabera zeinetan zein baldintza bete behar diren *legionelosisa* zehazten den. IDAE gida biltzen dira baldintza hauek. Baldintzen arabera UBS-a gutxienez 60 °C biltegitratuko da deposituaren punturik urrunean 50 °C-tik behera jaitsi barik. Instalazioak ahalbidetu beharko da gutxienez urtean behin deposituaren tenperatura 70 °C-tik gora igotzea *legionelosisaren* desagertzea mermatzeko. Beraz  $T_{in}$  60°C moduan zehaztuko da.

UBS-aren eskaria kode teknikoaren BD-HE 4 dokumentuak hemanda dator, etxebizitzetara dagokion atalean. Kontuan hartuta 3 pertsona biziko direla urtean zehar eta bisitak ugariak direla, eskaria 7 pertsonentzako dimentsionatuko da. Kasurik txarreanean **196 l/egun** beharko dira.

18. Taula BD-HE 4 dokumentuaren arabera zenbat litro behar diren.

| <b>Eskari irizpidea</b> | <b>Litro/egun</b> |
|-------------------------|-------------------|
| <b>Etxebizitza</b>      | 28                |

UBS berotzeko beharrezkoa da zenbait potentzia geroago kalkulatzeko dena. Ordea, ez da berdina ur bolumen totala berotzea ordu bateko aldi edo aldi handiago batean. Hau UBS



eskariaren araberakoa izango da, eta kalkulu errealistak izateko, UBS beroketa **bi ordutan zehar** kalkulatzeko da, ura ondo berotzeko denbora soberan dena.


Aipatzekoa da eguzki erradiazio kargak, argiztapen kargak, betetze kargak, barruko kargak eta karga latenteak ez direla kontuan hartuko, karga hauek bero ekarpena dakartelako. Ondoren ikusiko denez proiektua egingo den tokian klimatizazio eskaria berokuntzakoa izango da gehien bat, hozketa alde batera utziz Gradu-Egun metodoak zehazten duen moduan.

#### 1.2.1.3.6. Gradu egun metodoa

Eskari energetikoak zehazteko balio duen metodoa da, ostera ez da metodo hau erabiliko eskaria zehazteko, baizik eta metodo honekin ikusi daiteke ea zenbat egunetan behar den hozketa edo beroketa kanpoko klimarekin alderatuz.

Bataz besteko gradu zenbakiak zeinetan denbora aldi batean kanpoko tenperatura medioak oinarriko tenperaturen gaineratik edo azpitik dagoen

Baldin eta kanpo tenperatura oinarritik gaineratik edo azpitik dagoen, berokuntzako gradu egunetaz hitz egiten da (Heating Degree-Days) edo hozketa gradu egunetaz (Cooling Degree-Days). Tenperatura oinarriak Europan berokuntzarako 15 °C dira eta hozketarako 26 °C. Honen funtsa, oinarri tenperatura etxebizitzarekin osatzen duen jauzi termikoa handitzen ez bada, etxeak ez du behar bero edo hozte aportaziorik tenperatura optimoan mantentzeko. Proiektuko egun graduen metodoa ikusiko da ondoren:



58. Irudia Gradu egunen grafika.

Lortutako datuek grafikatu dira, eta argi zehazten denez, tenperatura ez da sarritan  $T_B$ -tik pasaratzen, beraz, erabaki da bero ponpa bakarrik beroketarako erabiltzea ez daukelako zentsu askorik erabiltzea hotza ekoizteko. Naiz eta hau honela izan ponpa itzulgarria proposatuko da etorkizunean hotza ekoizteko erabili nai bada.

Datuetara bueltatuz antzeman daiteke HDD graduak gehienak direla eta klimatizazio sistemak gehien bat bero ekoiztetan lan egingo duela.

## 1.2.1.4. Kargen kalkulua

Atal honetan, 1.2.1.3 atalean karakterizatu den moduan baserrian gertatzen diren kargak estimatuko dira. Etxeak momentu honetan dituen potentzia eta energia eskaria plazaratuko dira.

### 1.2.1.4.1. Potentzia kargen kalkulua.

Beroketa potentzia kalkulatzeko kontuan hartuko dira etxebizitza hozten duten kargak. Halaber, kargak dimenzionatuko dira baldintza txarrenak pairatzeko, era honetan hilabete hotzenetan (abendua eta urtarrila) erregistratutako tenperaturak hain zuzen ere.

1.2.1.3.1 Atalean ondo azaldu denez kanpoaldeko tenperatura ( $T_{out}$ ) gobernuak hemanda dator eta kalkulaturako kargak transmisio, infiltrazio, aireztapen eta UBS horniketarenak izango dira.

#### Transmisio Kargak

Lehenago azaldutakoaren arabera, transmisio kargak hainbat faktoreek baldintzatzen dute; kanpoaldeko tenperatura, ikusgai den azalera eta etxearen isolamendua, transmitantzia termikoaz karakterizatuta datorrena.

Era honetan kargak kalkulatzeko orduan bakarrik azalera eta transmitantzia aldatuko dira, elementuaren arabera [12. Taulan ikusten denez. Elementu desberdinen transmisio kargen kalkuluak egiteko hodorengo formula erabiliko da.

$$Q_{trans} = U \cdot A \cdot \Delta T$$

$$Q_{trans,AL} = 2,702 \frac{W}{m^2 \cdot ^\circ C} \cdot 327,561 m^2 \cdot (1,2 ^\circ C - 21 ^\circ C) =$$

$$Q_{trans,AL} = -17528,958 W$$



19. Taula Transmisio kargen karakterizazioa.

|                           | $A \text{ (m}^2\text{)}$ | $U \text{ [W/m}^2\text{.}^\circ\text{C]}$ | $Q_{trans} \text{ [W]}$ |
|---------------------------|--------------------------|---|-------------------------|
| <i>Azalera librea</i>     | 327,561                  | 2,702                                     | -17528,958              |
| <i>Azalera lurperatua</i> | 45,02                    | 3,030                                     | -1227,810               |
| <i>Solairua</i>           | 290,45                   | 2,222                                     | -5883,320               |
| <i>Teilatua</i>           | 437                      | 0,269                                     | -2331,724               |
| <i>Ateen azalera</i>      | 10,07                    | 2,29                                      | -456,609                |
